

ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

eman ta 2004 2009

Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

BAROMETROA

Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak

2021



AURKIBIDEA



| | |
|---|-----|
| Sarrera | 3 |
| Fitxa teknikoa | 4 |
| 1. Jatorri atzerritara duten pertsonen etorrera | 5 |
| 2. Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak | 24 |
| 3. Eskubide eta zerbitzuak | 41 |
| 4. Bizikidetzaren ereduak eta harremanetarako espazioak | 62 |
| 5. Kultura-ereduak mantentzea | 93 |
| 6. Estereotipoak | 109 |
| 7. Immigrazio-politika | 123 |
| 8. Tolerantzia-indizea | 133 |
| 9. Ondorioak | 149 |
| Eranskina: galdetegia | 153 |



Sarrera

Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzio eta jarrerei buruzko 2021eko Barometro Txostena aurkezten dugu. Dokumentua honako gai nagusi hauetan oinarritzen da: etorkinen presentziaren eta bolumenaren inguruko pertzepzioa; euskal gizartean hautemandako eraginak; eskubide eta zerbitzuen sarbidea; bizikidetzaren ereduak eta harreman-espazioak; kultura-irizpideak mantentzea; estereotipoak eta sinpatia-gradua; immigrazio-politika eta tolerantzia-indizea.

2021eko Barometroan lortutako emaitzek azken barometroan hautemandako bideari jarraitzen diote. Beraz, egungo osasun- eta gizarte-krisiaren testuinguruan, euskal gizarteak jarrera inklusibo eta toleranteagoarekin erantzun du.



Fitxa teknikoa

- Landa-azterketaren data: 2021eko martxo.
- Egindako inkestak: 600 (Konfiantza-maila = % 95, $Z = 1,96$ eta errorea = % +/- 4).
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorakoei.
- “Esleipen proportzional” bidez estratifikatutako laginketa, habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren araberako kuotekin.
- Etxeen hautaketa: ausazko ibilbideen sistema.
- 39 laginketa-puntu 25 udalerritan (4 Araban, 9 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian).

1



Jatorri atzerritarra duten pertsonen etorrera

- a. Jatorri atzerritarreko pertsonen presentzia arazotzat hautematea
- b. Jatorri atzerritarreko pertsonen bolumena nola hautematen den

A) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN PRESENTZIA ARAZOTZAT HAUTEMATEA



Bizikidetzan eragina duen faktore nagusietako bat honako hau da: immigrazio-fenomenoa arazotzat hautematea. Lehen atal hau aztertzeko, lehenengo eta behin, Euskadin ditugun hiru arazo nagusiak zein diren galdetu eta bat-bateko erantzunak jaso ditugu. Gero, galdera bera egin dugu, baina Eurobarometroan erabiltzen denaren moduko arazo-zerrenda bat erakutsiz. Azkenik, galdera bera egin dugu berriz, baina immigrazioa arazo pertsonal gisa aipatuz.




Arazotzat hartzen al da immigrazioa EAEn? 2021eko Barometroak erakutsi digu, beste behin ere, euskal gizartearen gehiengoak ez duela ez arazo sozialtzat ez pertsonaltzat hartzen etorkinen presentzia. Inkestatuen

% 6k baino ez du bat-batean erantzun immigrazioa arazo bat dela, eta % 2,3k baino ez du hartzen arazo pertsonaltzat. Pentsatzekoa den moduan, immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa handitu egin da (% 9,8) inkestatuei immigrazioa erantzun gisa iradoki zaienean.

2020ko datuekin alderatuta, beherakada txiki bat izan da immigrazioa Euskadin dugun arazo nagusietako bat dela erantzun dutenen kopuruan –bai bat-batean bai iradokita–, baita arazo pertsonaltzat hartzen dutenen kopuruan ere. Osasun-krisi baten erdian egonik, ez da harrizkoa euskal herritarren kezka nagusiak osasun- eta ekonomia-alderdiekin loturikoak izatea.

Bilakaera: Immigrazioa Euskadiko arazotzat hautematea (bat-bateko erantzuna, erantzun iradokia eta arazo pertsonala, %), 2007-2021


2021



Azken urtean behera egin du immigrazioa arazotzat hautemateko joerak, bai bat-batekoak (-1,5 puntu) eta bai iradokiak (-0,4 puntu). Horrez gain, badirudi 2008-2014 urteetako krisiaren amaieraz geroztik dagoen joerak adieraz dezakeela EAEko gizartean immigrazioa ez dela arazo esanguratsutzat hautematen.


Inkestatuena generoa kontuan izanda, emaitzek ez dute alderik erakusten estatistikoki, eta, beraz, esan dezakegu ez dagoela desberdintasunik gizonen eta emakumeen artean immigrazioa arazotzat hautematerakoan: bi kasuetan, arazotzat hartzen dutenen kopurua txikia da.

Euskadin ditugun arazo nagusiak (bat-bateko erantzuna, %)



■ Lehen erantzuna
 ■ Aipamenak guztira


Erantzuna: immigrazioa




Lehen aipamenean, inkestatuen % 1,5ek hartu du immigrazioa Euskadin dugun arazo nagusitzat (bat-bateko erantzunak). Aldiz, aipamen guztiak kontuan hartuta (hiru arazo garrantzitsueni buruz egin zaie galdeketa), % 6,0k baino ez du uste immigrazioa Euskadin dugun arazo bat dela. Gehien aipatu diren arazoak COVID-19a (% 57,3) eta langabezia (% 54,3) izan dira. Aipatu den hirugarren arazoa, lehen biak baino askoz ehuneko apalagoarekin, ekonomiarekin loturikoa izan da (% 32,5).

Euskadin ditugun arazo nagusiak sexuaren/generoaren arabera (bat-bateko erantzuna, %)

Gizonak



Emakumeak




g1

Euskadin immigrazioa arazotzat hautemateko joera generoaren arabera alderatzen badugu (bat-bateko erantzuna), estatistikoki ez dago desberdintasun esanguratsurik. Dena dela, beste kontu batzuetan hautematen dira desberdintasunak: esaterako, gizonek (% 33,1) kezka nabarmen handiagoa erakutsi dute emakumeek (% 21,1) baino langabeziari dagokionez. Halaber, gizonek (% 17,8) gehiago aipatu dute klase politikoaren kontua emakumeek (% 8,3) baino.

Desberdintasun horiek alde batera utzita, COVID-19a eta langabezia dira gizon eta emakumeentzako kontu larrienak, eta ondoren arazo ekonomikoak; desberdintasun numeriko txikiak daude, eta hautematean ez dago alde esanguratsurik.


Euskadin ditugun arazo nagusien bilakaera (bat-bateko erantzuna, %)



2021ean, honako hauek dira arazo nagusiak euskal gizartearentzat: COVID-19a, langabezia, arazo ekonomikoak eta enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak, etab.).


Bilakaerari dagokionez, egungo osasun-krisiak euskal gizartearen hautematean izan duen eragina ikusi dezakegu. COVID-19a da arazo nagusia, eta gora egin du arazo ekonomikoekiko eta lanekoekiko kezka. Ildo horretan, 2020arekin alderatuta gora egin du arinki langabezia Euskadiko arazo nagusienetako bat dela uste dutenen ehunekoak.

Euskadin ditugun arazo nagusiak (erantzun iradokia, %)



g2

Erantzuna: immigrazioa




Immigrazioaren inguruan arazo gisa galdetzen denean zerranda iradoki batetik abiatuta, lehen aipamenean soilik biztanleriaren % 2,0k aipatzen du. Aipamen guztien artean (hiru arazo garrantzitsuenen inguruan galdetuta) ikusi da immigrazioa arazo bat dela Euskadiko biztanleriaren % 9,8rentzat. Hauek dira gehien aipatu diren arazoak: langabezia (% 64,8), egoera ekonomikoa (% 56,5) eta, atzerago, osasuna eta gizarte-segurantza (% 32,8).


2020ko Barometroarekin alderatuta, immigrazioak behera egin du arazo iradoki gisa, azken urteetako joerari jarraikiz: % 10,2tik % 9,8ra igaro da.

Euskadin ditugun arazo nagusiak sexuaren/generoaren arabera (erantzun iradokia, %)

Gizonak




Emakumeak




EAEen hainbat erantzun iradoki ondoren arazo gisa, estatistikoki ez dira desberdintasun nabarmenak hauteman generoaren arabera, eta baieztatu daiteke gizon eta emakumeen jarrera ez dela desberdina kontu horretan. Beste behin, grafikoetan jasotako desberdintasun numeriko txikiek ez dituzte islatzen hautemate-desberdintasun nabarmenak gizon eta emakumeen artean; horiek ausazkoak dira.

Arazo garrantzitsuenak, bai gizonentzat eta bai emakumeentzat, langabezia, egoera ekonomikoa eta osasuna nahiz Gizarte Segurantza dira.

Hiru arazo pertsonal nagusiak (%)



Erantzuna: immigrazioa




Lehen aipamenean, % 1,0ek aipatu du immigrazioa arazo pertsonaltzat, eta, aldiz, aipamen guztiei erreparatuz gero (hiru arazo pertsonal garrantzitsuenei buruz egin zaie galdeketa), euskal biztanleriaren % 2,3rentzat baino ez da immigrazioa arazo pertsonal bat. Eragin pertsonalari dagokionez, hauek dira gehien aipatutako arazoak: COVID-19a (% 48,7), arazo ekonomikoak (% 27,8) eta langabezia (% 25,2).


Immigrazioak behera egiten jarraitzen du arazo pertsonal gisa, eta % 2,8tik (2020) % 2,3ra igaro da (2021).

Hiru arazo pertsonal nagusiak sexuaren/generoaren arabera (%)

Gizonak



Emakumeak





g25


Inkestatutako pertsonen arazo pertsonal nagusiei dagokienez, estatistikoki ez dira desberdintasun nabarmenak hauteman generoaren arabera: gizon eta emakumeentzat COVID-19a, arazo ekonomikoak eta langabezia dira hiru arazo pertsonal nagusiak.

Hala ere, generoaren araberako desberdintasunak hauteman dira osasunaren eta osasun-sistemaren kontuan. Horren inguruan galdetu ondoren, emakumeek (% 14,1) gizonek (% 6,3) baino nabarmen gehiago aipatu dute hura euren arazo pertsonal nagusi gisa.

Euskadin gaur egun dauden hiru arazo nagusiak

Arazo nagusiak Euskadin
(bat-bateko erantzuna, %)Arazo nagusiak Euskadin
(erantzun iradokia, %)


■ 2021 ■ 2021

Arazo **pertsonal** nagusiak
(bat-bateko erantzuna, %)

g1, g2, g25

Osasun-krisiaren testuinguruan, COVID-19a ageri da euskal gizarteko arazo nagusi gisa. Horrekin batera, langabezia eta arazo ekonomikoak ere nabarmentzen dira, osasun-krisiaren ageriko ondorioak direnez gero.

B) JATORRI ATZERRITARREKO PERTSONEN BOLUMENA NOLA HAUTEMATEN DEN




Atal honetan, euskal gizarteak EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen bolumena nola hautematen duen aztertzen da. Gai esanguratsua da; izan ere, migrazioaren fenomenoaren pertzepzioa gairik garrantzitsua da ote dagoen jakiteko aukera ematen du, eta horrek eragina izan dezake migrazioaren aldeko edo aurkako jarreretan. Horretarako, euskal gizarteak biztanleria migratzailearen bolumenari buruz zer balorazio egiten duen jaso da, bai EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen zifra erreala jakin aurretik duen iritzia eta bai zifra hori jakin ondoren duena. Gainera, galdetu zaie ea datozen bost urteetan beren ustez Euskadira atzerritar jatorriko biztanleak etortzen jarraituko duten, eta zein diren iritsiko direnen herritartasun nagusiak.

EAEn jatorri atzerritarreko pertsonen bolumenaren hautematea independentea da errealitatearekiko, eta kopurua benetan dena baino handiagoa delako sententzia mantentzen da. Nolanahi ere, hautematea % 15etik % 20ra bitartean mugitzen da. Aurreko urteetan bezala, jatorri atzerritarreko pertsona gehiegi daudelako hautemateak behera egiten du behin datu erreala ezagutzean.

Etorkizunean pentsatuz, hamarretik zazpi herritarrek uste dute bost urtean igo egingo dela Euskadin atzerritar jatorriko biztanleria, eta uste dute gehienak magrebtarrak, Saharaz hegoaldeko Afrikakoak eta latinoamerikarrak izango direla.

Atzeritar jatorriko biztanleriaren bolomena nola hautematen den, atzerriko biztanle-kopuruaren datu ofiziala jakinarazi aurretik (%), 2004, 2007-2021




Euskadiko biztanleriaren herenak uste du EAEn atzeritarrak gehiegi edo askotxo direla (% 38,0). Hautemate horrek gora egin du arinki aurreko urtearekin alderatuta (+2,2 puntu).

2012-2014 alditik gora egin du EAEn jatorri atzeritarreko pertsonak gehiegi edo askotxo direla uste duten pertsonen kopuruak (2012an “kopuru egokia” kategoria gehitu genuen). Hala ere, zifra horrek behera egin du 2015az geroztik, eta % 17,2ra heldu da.

Nahiz eta desberdintasun numerikoak dauden, ezin dugu esan estatistikoki desberdintasun nabarmenik dagoenik gizon eta emakumeen artean: atzeritar jatorriko pertsonen bolumenaren inguruko haien hautematea ez da desberdina 2021ean.

Euskadin erroldatutako atzerriko biztanleen ustezko kopurua eta kopuru erreala (%), 2007-2021




2021eko Barometroaren emaitzek erakusten dute euskal gizarteak neurritz kanpo hautematen duela EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen bolumena. Hautemate horrek ia bikoiztu egiten du estatistika ofizialetan erroldatutako eta erregistratutako jatorri atzerritarreko pertsonen zifra.

2020 eta 2021 artean, Euskadin erroldatutako atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoak gora egin du %11,1era arte, eta euskal gizartearen hautematea % 18,6koa da.

Generoaren arabera, azken urtean emakumeek (% 21,4) atzerritar jatorriko pertsonen kopuru handiagoa hauteman dute gizonek (% 16,0) baino.

Atzeritar jatorriko biztanleriaren bolumena nola hautematen den, atzerriko biztanle-kopuruaren datu ofiziala jakinarazi ondoren (%), 2004, 2007-2021




Atzerriko biztanle-kopuruaren datu erreala jakinarazi ondoren, bolumenaren pertzepzioak aldatu egiten da: herritar gutxiagok uste dute kopuru hori handiegia edo nahikoa dela (% 26,0), eta gehiagok pentsatzen dute EAEn bizi den atzeritar jatorriko biztanleen kopuru erreala egokia dela (% 55,3).

2012-2014 artean hazi egin zen Euskadin atzeritar jatorriko biztanleen kopurua handiegia edo nahikoa dela uste dutenen ehunekoa. Hala ere, zifra horrek behera egin zuen 2015 eta 2016 urteen artean, eta orain berriro jaitsi da 2021ean.

Generoari erreparatuta, zenbakien artean aldeak dauden arren, ezin dugu esan desberdintasun estatistikoak esanguratsuak direnik gizonen eta emakumeen artean: atzeritar jatorriko biztanleriaren bolumena hautemateko modua ez da aldatzen.

g5


Hurrengo bost urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez..? (%), 2017-2021



Gaur egun, hamar pertsonatik zazpik uste dute datozen bost urteetan Euskadin immigrazioak gora egingo duela (% 67,7), nahiz eta ehuneko horrek behera egin duen arinki aurreko urtearekin alderatuta (-2,3 puntu). Halaber, gora egin du kopuru horrek behera egingo duela uste duten pertsonen ehunekoak (+0,6 puntu), eta antzekoa izango dela uste dutenen ehunekoa ia berdina da. Oro har, horrek adierazten digu euskal gizartea ohituta dagoela gero eta etorkin gehiago egotearekin, bai eta onartzen ari dela ere fenomeno hori egiturazkoa dela.

g21


Hurrengo bost urteetako egoerari begira, immigrazioak EAEn, zure ustez..? (%), sexuaren/generoaren arabera



Generoari erreparatuta, zenbakien artean aldeak dauden arren, ezin dugu esan desberdintasun estatistikoak esanguratsuak direnik gizonen eta emakumeen artean: etorkizunean pentsatuz, EAEko atzerritar jatorriko biztanleriaren aldaketei buruzko antzeko pertzepzioa dute biek.

Emakumeek zein gizonek ulertzen dute immigrazioa egiturazko elementua dela gaur egungo gizartean, eta atzerritar jatorriko pertsonak iristen jarraituko dutela datozen urteetan.

Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (%)




Euskadira etorkinak iristen jarraituz gero, beren ustez zer jatorritakoak izango diren galdetuta, gehienek nagusiki magrebtarrak izango direla adierazi dute (% 80,8), Saharaz hegoaldekoak gero (% 73,3) eta latinoamerikarrak azkenik (% 57,8).

Pertzepzio hori ez dator bat datu objektiboek erakusten duten errealitatearekin; izan ere, EAera datozen atzerritar jatorriko biztanle gehienak latinoamerikarrak dira: hiru pertsonatik bi, gutxi gorabehera.


Oso gutxik uste dute Estatu Batuetakoak eta Kanadakoak (% 0,2) eta 24etako Europar Batasunekoak (% 1,0) etorriko direnik.

Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (%), sexuaren/generoaren arabera

Gizonak



Emakumeak



g22

Generoari erreparatuta, zenbakiaren artean alde batzuk dauden arren, ezin dugu esan desberdintasun estatistikoak esanguratsuak direnik gizonen eta emakumeen artean: etorkizunean pentsatuz, antzeko pertzepzioa dute EAera etorriko direla espero duten atzerriko pertsonen jatorriari buruz.

Gizonek zein emakumeek, biek uste dute hiru jatorri hauetako pertsonak ugarituko direla nagusiki: magrebtarrak, Saharaz hegoaldekoak eta latinoamerikarrak.


2



Gizarte hartzailean hautemandako ondorioak

- a. Ekonomian
- b. Hizkuntza- eta identitate-gaietan
- c. Ongizatean

ONDORIOAK EUSKAL GIZARTEAN




Atal honetan, euskal gizartean eragin positibo zein negatiboa izan dezaketen immigrazioaren alderdiak aztertzen dira. Horretarako, inkestatutako pertsoneri galdetu diegu zer ondorio dituen immigrazioak ekonomian, identitate- eta hizkuntza-gaietan eta ongizatean.

Ekonomiari dagokionez, ondorio positiboak (ekonomiak hobera egin du bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak edo langileak behar dituzten sektoreak bete direlako) zein negatiboak (soldatek behera eta langabeziak gora egin dute) buruz galdetu diegu. Identitate- eta

hizkuntza-gaiei dagokienez, herritarrei galdetu diegu zer eragin izan dezakeen atzerriko immigrazioak euskal abertzaletasunaren helburuetan, euskal identitatean, eta euskararen garapenean eta erabileran.

Eta, azkenik, immigrazioak euskal gizartearen gizarte-ongizatean zer ondorio positibo edo negatibo dituen galdetu diegu.

ONDORIOAK EUSKAL GIZARTEAN



Immigrazioak ekonomian dituen ondorioei dagokienez, 2021eko Barometroak erakusten du alderdi positiboen pertzepzioak hazten jarraitzen duela, eta 2015ean hasitako joera finkatzen ari dela. Horrekin batera, euskal gizartearen gehiengoak alderdi negatiboak gero eta gutxiago hautematen ditu (soldatek behera eta langabeziak gora egin dute). Hortaz, eta bizi dugun ziurgabetasun-egoera gorabehera, immigrazioarekin eta lan-merkatuarekin lotutako jarrerak hobetzen ari direla ikusten da.

Immigrazioak euskal gizartearen identitatean eta hizkuntzan dituen ondorioei dagokienez, datuek erakusten dute EAEn immigrazioaren fenomenoaren eztabaida soziala ez dela erlazionatzen identitateei eta


euskararen erabilerari buruzko eztabaida politikoarekin. Bereizketa horri esker, ez dira garrantzi sozialeko pertzepzio negatiboak sortzen herritarrengan. Alde horretatik, immigrazioaren ondorioen inguruko kezka identitate-gaiekin baino lotuago dago gai ekonomikoekin.

Azkenik, biztanleria immigranteak gure ongizate-estatuan duen ondorio positibo edo negatiboari buruz euskal gizarteak egiten duen balorazioari dagokionez, neutro edo anbibalente samarra da, eta erdiko posizioetan kokatzen da. Hala ere, ikusi dugu azken urtean hobetu egin dela etorkinek egiten duten ekarpenaren inguruko ikuspegia, eta serie osoko datu positiboena lortu dugu.


A) EKONOMIAN

■ Ados ■ Ez ados, ez kontra ■ Kontra ■ Ed/Ee

Ondorio positiboak (%)



Ondorio negatiboak (%)



g6a, g6c, g6e, g19j


2020arekin alderatuta, gora egin du atzerritar jatorriko pertsonen heldueraren onura ekonomikoak eta lan-funtzionaltasuna hautematen duten euskal biztanleen ehunekoak.

Horrekin batera, behera egin dute soldatak immigrazioaren ondorioz jaitsi direla uste dutenen ehunekoak, nahiz eta arinki gora egin duen langabezia handitu dela uste dutenen ehunekoak (+2,1 puntu).

Edonola ere, Euskadiko biztanleek ez dizkie etorkinei “leporatzen” langabezia, enpleguaren beherakada edo soldaten murrizketa bezalako arazo ekonomikoak; are gehiago, geroz eta gehiago baloratzen dute gure ekonomiari egiten dizkioten ekarpen positiboak.


A) EKONOMIAN

Ondorio positiboak (%)



Etorkinen helduerak ekonomiarengan izan ditzakeen eragin positiboan bilakaera negatiboa izan zen 2004 eta 2014 artean. Hala ere, urte horretatik aurrera, Euskadiko biztanleriak immigrazioaren eta ekonomiarengan dituen eraginaren ikuspegi positiboa berreskuratu zuen, eta aitortu zuten immigrazioari esker ekonomiak hobeto funtzionatzen duela, etorkinek bertakoek bete nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako. Horrez gain, aitortzen dute etorkinak behar ditugula gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko. Are gehiago, ikusi dugu

Ondorio negatiboak (%)




egungo pandemiaren testuinguruan ere Euskadiko biztanleek oraindik ere ikusten dutela migrazioaren eragin positiboa.

Immigranteak etortzearen ondorio negatiboei (hala nola, langabezia igotzea edo soldatak jaistea) eta haien bilakaerari dagokienez, esan daiteke gero eta gutxiago direla binomio negatibo hori onartzen dutenak, bereziki 2013-14tik aurrera.

ONDORIO POSITIBOAK. Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako (%)

2021




Gizonak

65,2

Emakumeak

66,8




g6e

Lan-merkatuarekiko immigrazioaren ikuspegi funtzional eta utilitaristak –hau da, immigranteek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztela eta horri esker ekonomiak hobeto funtzionatzen duela diotenak– gainbehera nabarmena izan zuen, batez ere 2008ko krisi ekonomikoaren eraginez; dena den, ordurako jaisten hasita zegoen, eta 2004an % 63,0 izatetik 2014an % 32,8 izatera pasatu zen. Hala ere, gorabeherak medio, 2015etik aurrera ikuspegi hori berreskuratu da, eta % 66,0ra heldu zen 2021ean, gaur arte jasotako baliorik handiena.

Generoaren arabera, nahiz eta desberdintasun numeriko txikiak dauden horiek ez dira horren handiak ikuspuntu estatistikotik; beraz, baieztatu dezakegu ez dagoela desberdintasun nabarmenik gizon eta emakumeen artean kontu horri dagokionez.

ONDORIO POSITIBOAK. Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko (%)

2021




Gizonak

72,1

Emakumeak

69,3




g6c

Aurreko puntuarekin gertatu den antzera, immigranteak lan-merkatura ondo egokitzen direla uste duten pertsonen ehunekoa nabarmen murriztu zen krisialdi ekonomikoaren testuinguruan, 2014an % 30,4ra jaitsi arte. Dena den, orduz geroztik berriz sendotu da immigrazioaren ideia funtzional eta utilitaristagoa, krisialdi ekonomikoaren aurretik nagusi zena. Hala, 2021ean euskal biztanleen % 70,7k uste du beharrezkoa dela gure ekonomiaren sektore batzuetan etorkinak sartzea.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, estatistikoki ez dago desberdintasun nabarmenik. Immigrazioari eta Euskadiko ekonomian duen tokiari dagokienez, gizon eta emakumeek antzeko iritzia dute.

ONDORIO NEGATIBOAK. Atzerriko etorkinen presentziak Euskadin langabezia handiagoa izatea dakar (%)

2021




Gizonak

22,3

Emakumeak

26,2




g19j

Euskal biztanleen erdiak baino gehiagok (% 58,7) ez dituzte lotzen atzerriko etorkinen presentzia eta langabeziaren gorakada. Ideia hori oso finkatuta zegoen hamarkada honen hasieran, baina geroz eta gutxiago ageri da euskal gizartearen imajinarioan. Esperientziaren ebidentziak bereizi egiten ditu atzeritar jatorriko pertsonen kopurua eta gizartearen izan daitezkeen langabezia-mailak; langabezia askoz lotuago dago nazioarteko krisi ekonomikoarekin (2008ko krisia) eta gaur egungo osasun-pandemiarekin.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, kasu honetan ere ez dugu desberdintasun nabarmenik ikusi gizon eta emakumeen artean.

ONDORIO NEGATIBOAK. Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du (%)

2021




Gizonak

18,5

Emakumeak

15,7




p6a

Euskal gizarteak baztertu egiten du oraindik ere etorkinen etorrerak soldaten zenbatekoan eragina duela.

Generoari erreparatuta, ezin dugu esan estatistiketan dauden aldeak esanguratsuak direnik; beraz, gizonak eta emakumeak antzeko pertzepzioa dute immigrazioak soldaten beherakadan duen eraginari buruz: biek uste baitute ez duela eraginik.

B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIETAN




EAEEn, immigrazioaren fenomenoari buruzko eztabaida soziala ez da erlazionatzen identitateei eta euskararen erabileri buruzko eztabaida politikoarekin. Bereizketa horri esker, ez dira immigrazioaren eta identitatearen arteko loturaren garrantzi sozialeko pertzepzio negatiboak sortzen herritarrengan.

Euskal herritarren gehiengo handi batek (% 75,5) ez du uste atzerritar jatorriko biztanleria etortzeak euskal identitatea galtzen laguntzen duenik, eta % 71,8k ere ez du uste euskal abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko dituenik.

Euskararen erabileri eta garapenari dagokienez, datuak ildo beretik doaz: % 73,5ek ez du uste euskararen garapena geldiarazten duenik, eta % 68,6k ez du uste gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskararen erabilera eta garapena murriztea eragin dezakeenik.

B) HIZKUNTZA- ETA IDENTITATE-GAIETAN




Hizkuntza- eta identitate-gaiei loturiko pertzepzio negatiboak ez dira esanguratsuak.

Oro har, behin ere ez da egon iritzi negatibodun pertsona-kopuru handirik, eta azken urteetan are gehiago murriztu da kopuru hori.

- Abertzaletasunaren helburuak geldiaraziko ditu
- Euskal nortasuna galtzea ekarriko du
- Euskararen garapena geldiaraziko du
- Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da

Etorkin atzerritarrak iristeak euskararen garapena geldiaraziko du (%)

2021




Gizonak

13,6

Emakumeak

13,4




g23a

Euskal gizarteak ez du uste atzerritar jatorriko pertsonak etortzeak euskararen garapena geldiaraziko duenik. Azken urteetako zifrei erreparatuz, biztanleriaren % 70-75ek du iritzia hori.

Generoaren arabera, emaitzek adierazten dute ez dagoela desberdintasun nabarmenik ikuspuntu estatistikotik; beraz, baieztatu dezakegu ez dagoela desberdintasunik gizon eta emakumeen artean immigrazioak euskararen garapenean duen eragina baloratzeko orduan.

Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da (%)

2021




Gizonak

14,6

Emakumeak

14,1




g23b

Gauza bera gertatzen da gaur egun euskara nagusi den Euskadiko eremuetan atzerriko etorkinek izan dezaketen eraginarekin: oso gutxi dira tesi horren aldekoak, eta ehunekoak nahiko berdin eutsi dio, gorabehera txikiekin bada ere, 2004tik gaur egunera arte.

Generoari erreparatuz, emaitzetan ez da alde esanguratsurik ikusten estatistikoki, eta, beraz, esan dezakegu ez dagoela alderik gizonen eta emakumeen pertzepzioaren artean.

Euskal nortasuna galtzea ekarriko du (%)

2021




Gizonak

9,4

Emakumeak

7,0




g23c

Euskal biztanleriaren gehiengoak (% 75,5) ez du uste immigrante atzerritarrak etortzeak euskal nortasuna galtzea ekarriko duenik; biztanleen % 8,1 soilik da tesi horren aldekoa. Gainera, azken urteotako joerak erakusten du gero eta gutxiago direla ideia horrekin ados daudenak.

Ehunekoen desberdintasunak gorabehera, kasu honetan ere ez da desberdintasun estatistikoa nabarmenik hauteman gizon eta emakumeen artean.

Geldiarazi egingo ditu abertzaletasunaren helburuak (%)

2021




Gizonak

11,1

Emakumeak

6,4



g23d


Euskal gizartearen gehiengoak ez du uste immigrante atzerritarrek etortzeak euskal abertzaletasunaren helburuetan eragin negatiboa izan dezakeenik (% 71,8). Azken urteetan, pertzepzio hori egonkortu egin da, eta euskal biztanleriaren % 70-80 inguruan kokatzen da. Gainera, oso gutxi dira uste dutenak atzerritar jatorriko pertsonak etortzea eta euskal abertzaletasunaren helburuen atzerakada lotuta daudela, batez ere 2014tik aurrera (2021ean, % 8,7 dira).

Generoaren arabera, gizonak (% 11,1) emakumeek (% 6,4) baino nabarmen gehiago hauteman dute atzerritar jatorriko pertsonen helduerak euskal abertzaletasunaren helburuak geldiarazi ditzakeela.

C) ONGIZATEAN

Immigrazioak euskal gizartean dituen ondorio positibo edo negatiboaren pertzepzioa

0 puntutik (negatiboak) 10 puntura (positiboak)




Datuek erakusten dutenez, etorkinek euskal gizartean egiten duten ekarpen orokorrari buruz gero eta ikuspegi positiboagoa ari da hedatzen azken urteotan. Atzerriko immigrazioa gero eta normaltasun handiagoarekin hartzen dugula dirudi, beldur gutxiagorekin eta konfiantza gehiagorekin.

Izan ere, 2015az geroztik, eta adierazle makroekonomikoen hobekuntzarekin bat, joera gorakorra hauteman da, eta 2014tik aurrera ia puntu eta erdian hobetu da hautemate globala. Gainera, pertsona gehiagok uste dute eragin positiboak negatiboak baino gehiago direla.

Generoaren arabera bereiziz gero, kasu honetan ere ez dugu desberdintasun estatistiko nabarmenik ikusi gizon eta emakumeen artean.

Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek (%)

2021




Gizonak

Emakumeak

1,4

5,4



g19k

Atzerritar jatorriko pertsonak etortzeak Europako (eta EAEko) demografia zahartuan eragin positiboa izango duen ideia gero eta indar handiagoa hartzen ari da euskal gizartean. Euskal gizartearen % 71,1ek uste du immigrazioak eragin positiboa izan dezakeela EAEko eta Europako biztanleriaren hazkundera; % 9,0k baino ez dio kontrakoa irizten.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, desberdintasunak ikusiko ditugu, baina soilik isilagoak direlako (% 5,4k ez daki edo ez du erantzun) atzerritar jatorriko pertsonen helduerak demografian izan dezakeen eraginaren inguruan.

3



Eskubide eta zerbitzuak

ESKUBIDE ETA ZERBITZUAK

| ESKUBIDE ETA ZERBITZUAK | | HEZIKETA |
|--------------------------------|------------------------------|--------------------------------|
| Hezkuntza | Babes Ofizialeko Etxebizitza | Euskarako eskolak |
| Osasun-zerbitzua | Zerbitzu juridikoa | Gaztelaniako eskolak |
| Senide gertukoekoenak ekartzea | Gizarte-laguntzak | Lanbide-heziketa |
| | Bozkatzeko eskubidea | Jatorrizko hizkuntzako eskolak |

Euskal gizarteak uste du atzerritar jatorriko pertsonen bertako biztanleriaren eskubide eta zerbitzu berberak izan behar dituztela, COVID-19a dela eta martxan jarritako salbuespeneko laguntza eta neurriak ere kontuan hartuta. Oro har, euskal gizarteak jarraitzen du pentsatzen EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen, eskubide eta zerbitzuak izateko, legezko administrazio-egoeran egon behar dutela. Alabaina, herritarren ehuneko handi batek uste du hezkuntza eta osasuna eskubide unibertsalak direla, eta, beraz, den-denok izan behar ditugula, edozein delarik ere administrazio-egoera.


Immigranteek eskubide eta zerbitzuetara duten sarbidea –sarbide unibertsala zein legezko administrazio-egoeran daudenentzako– eta

azken urteotan herritarrek horri buruz emandako erantzunen bilakaera dinamika sozial eta makroekonomikoekin bat etorri garatu da. Hori horrela, krisialdi ekonomikoak gogorren jo zuen urteetan, hazi egin zen eskubide eta zerbitzuak izatea legezko administrazio-egoeran egotearekin lotzen zutenen ehunekoa. Azken urte honetan, berriz, zertxobait hazi da eskubide batzuek –adibidez, osasuna eta hezkuntza– eskubide unibertsalak izan behar dutela uste dutenen ehunekoa.

Horrekin batera, heziketarekin loturiko zerbitzuak eskuratzeko aukera unibertsala izatearen pertzepzioa handitu egin da, hala nola euskarako eta gaztelaniako eskolak, lanbide-heziketako ikastaroak eta jatorrizko hizkuntzako eskolak jasotzeko aukerarena.

Lehentasuna eskubideei heltzerakoan (%)

2021




Gizonak

77,0

Emakumeak

78,0

g17




Euskal biztanleriaren gehiengoak (% 77,5) uste du guztiok, edozein delarik bakoitzaren jatorria, izan behar ditugula betebeharrak eta eskubide berberak, hala nola osasun-zerbitzua, gizarte-laguntzak edo babes ofizialeko etxebizitzak izateko aukera. Hori uste duten pertsonen ehunekoa arinki igo da 2020arekin alderatuta (+2,8 puntu).

Nolanahi ere, % 22,2k deritzo, eskubide horiek izaterakoan, lehentasuna izan behar duela bertako biztanleriak atzeritar jatorriko pertsonen aurretik.

Generoari erreparatuta, emaitzek adierazten dute ez dagoela alde esanguratsurik estatistiketan, eta, beraz, esan dezakegu gizonen eta emakumeek modu berean baloratzen dutela eskubideak izatea.


Lehentasuna osasun-zerbitzuak eskuratzeari dagokionez, COVID-19ren testuinguruan (%)

2021



g41

COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren testuinguruan, euskal biztanleen % 94,2k uste du egoera okerrean dauden pertsonen osasun-arreta emateak izan behar duela lehentasuna, pertsona horien jatorria edozein dela ere. Hori ere igo egin da 2020arekin alderatuta (+3,2 puntu).





Hortik harago, biztanleen % 4,2k uste du bertako jendeak izan behar duela lehentasuna, eta % 0,8ren iritziz, legezko egoeran dauden atzerritar jatorriko pertsonak soilik artatu behar dira.


Datuak generoaren arabera aztertuz gero, ez dugu desberdintasun nabarmenik ikusi gizon eta emakumeen artean.

Etorkinek ez lukete diru-sarrerak bermatzeko errenta jaso behar, eta soilik bertakoentzat izan beharko luke (%)

2021



g6n




Diru-sarrerak bermatzeko errentari (DSBE) dagokionez, Euskadiko biztanle gehienek ulertzen dute babes sozialerako tresna gisa duen balioa, eta, ondorioz, uko egiten diote soilik bertakoentzako laguntza izan beharko lukeela dioen ideia.

Horrez gain, ikusi dugu urteek aurrera egin ahala pertsona gehiagok egin dutela bat ikuspegi horrekin. 2018 eta 2021 artean, hori uste duten pertsonen ehunekoak 16 puntu egin du gora.


Generoaren arabera, emaitzek adierazten dute ez dagoela desberdintasun estatistiko nabarmenik.

Lehentasuna laguntza ekonomiko eta sozialak eskuratzeari dagokionez, COVID-19ren testuinguruan (%)

2021



g42




Birusak eragin dituen ondorio ekonomiko eta sozialak arintzeko martxan jarritako neurriei dagokienez, hamar pertsonatik zortzi ados daude honako ideia honekin: laguntzen sarbideak berdina izan behar du guztiontzat (aurreko urtean baino % 16,3 gehiago).

Bestalde, % 14,0k uste du lehentasuna eman behar zaiela bertako pertsonari, eta % 3,2 ados dago laguntza horiek atzerritar jatorriko pertsonari ere ematearekin, baldin eta haien egoera legezkoa bada.

Laguntza horiek eskuratzeari buruzko iritzia generoaren ikuspegitik begiratuta, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean; biek dute pertzepzio bera.

Eskubideei heltzea eta egoera administratiboa (%)




g15

Atzerritar jatorriko pertsonak zenbait eskubide eta zerbitzu eskuratzearekin lotuta, bertako biztanleriaren iritzia desberdina da eskubide- edo zerbitzu-motaren arabera.

Euskadiko biztanle gehienek eskubide unibertsaltzat jotzen dituzte osasuna (% 83,2) eta hezkuntza (% 82,8), eta, neurri txikiagoan, laguntza juridikoa (% 61,3). Ondorioz, eskubide horietarako sarbideak irekia izan beharko luke etorkin guztientzat, euren egoera erregularra den ala ez kontuan hartu gabe.

Hala ere, beste eskubide batzuez mintzatzen garenean (laguntza sozialak, berriz elkartea, BOE edo bozkatzeko eskubidea), Euskadiko biztanle gehienak horiek murriztearen alde daude, uste baitute soilik administrazio-egoera erregularrean daudenek erabili ditzaketela.

Eskubide eta zerbitzuak izatea (“guztiak” aukeraren %)




g15

2004 eta 2018 artean, euskal gizartearen iritzian eragin handia izan zuen krisialdi ekonomikoak. Horren ondorioz, 2012an murriztu egin zen zenbait eskubidek eta zerbitzuek –hala nola, hezkuntzak eta osasunak– unibertsalak izan behar dutela uste zutenen ehunekoa.

Azken urte honetan, 2020arekin alderatuta, gora egin du, oro har, eskubide eta zerbitzu horien unibertsaltasuna defendatzen dutenen ehunekoa.

Osasun-zerbitzua (%)

2021




Gizonak

82,6

Emakumeak

83,7




g15b

Euskadiko biztanle gehienek (% 83,2) osasuna eskubide unibertsaltzat jotzen dute. Eskubide horrekin lotutako ikuspegiak joera gorakor orokorra izan du, une jakin batzuetan izan ezik. Hala ere, pandemiak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan, pertsona guztiek osasunerako sarbidea izan behar dutela uste duten Euskadiko biztanleen ehunekoak gora egin du nabarmen; izan ere, bi urteko epean ehuneko hori 12,2 puntu handitu da.

Gizonek eta emakumeek antzeko pertzepzioa dute osasun-zerbitzua jasotzeko aukerari buruz, eta ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik bien artean.

Hezkuntza (%)

2021




Gizonak

80,8

Emakumeak

84,7




g15a

2004. urtetik 2021. urtera, zenbait fase bereizten dira: aurrenekoan, gordaldi ekonomikoaren etapari lotutakoan, hezkuntza eskubide unibertsaltzat hartzen zutenen ehunekoak gora egin zuen, 2011ra arte. 2012an behera egin zuen eskubide hori denek izan behar dutela uste zutenen ehunekoak, eta hezkuntza jasotzeko aukera eta legezko administrazio-egoera lotzen dituztenen ehunekoak, berriz, gora egin zuen. Hezkuntza eskubide unibertsaltzat hartzen zutenen ehunekoak gora egin zueneko aldiaren ondoren, 2019an, pertzepzio horrek behera egin zuen. Hala ere, 2020az geroztik hezkuntza eskubide unibertsaltzat jotzen duten pertsonen ehunekoak gora egin du etengabe, eta 2021ean % 82,8ra heldu da, serie osoko baliorik handiena.

Estatistikaren ikuspegitik, ez da generoaren arabera alde esanguratsurik hautematen.

Zerbitzu juridikoa (%)

2021




Gizonak

61,0

Emakumeak

61,7




Euskal biztanleen % 61,3k uste du zerbitzu juridikoa etorkin guztiek izan behar dutela, edozein dela ere haien administrazio-egoera. Beraz, bi urteko epean bikoiztu egin da laguntza juridikoa edozein pertsonak (egoera edozein delarik ere) jaso beharko lukeela uste duten pertsonen ehunekoa.

Aurreko bi kasuetan bezala, zerbitzu juridikoa izateko aukeran ere ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik generoari dagokionez; gizonen eta emakumeen zenbakien arteko aldeak kasualitatearen emaitza dira.

Gizarte-laguntzak: DBSE, GLL... (%)

2021




Gizonak

33,4

Emakumeak

30,7




p15c

Euskadiko biztanle gehienek uste dute gizarte-laguntzetarako sarbideak soilik biztanle erregularizatuaren esku egon beharko lukeela (% 59,8). Hautemate horrek indarra galdu du nabarmen 2020koarekin alderatuta (15,7 puntu). Bestalde, handitu egin da laguntza horietarako sarbideak irekia izan behar duela uste duten pertsonen ehunekoa, administrazio-egoera edozein delarik ere. Hori uste du Euskadiko biztanleriaren herenak (% 32,0).

Gizarte-laguntzetarako sarbideari buruzko pertzepzioan, generoa ez da aldagai esanguratsua estatistiketan; ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean.

Senide gertukoek ekartzea (%)

2021




Gizonak

Emakumeak

29,6

27,2




Hiru euskal herritarretatik bat inguruk (% 28,3) uste du pertsona guztiek izan behar dutela senide gertukoek ekartzeko eskubidea, edozein delarik ere duten administrazio-egoera. Hala ere, gehiengoarentzat (% 65,5) sarbide horrek soilik administrazio-egoera erregularrean dauden etorkinen esku egon beharko luke; dena dela, iritzia horrek indarra galdu du aurreko urteekin alderatuta.

Generoari erreparatuta, emaitzek adierazten dute ez dagoela alde esanguratsurik estatistiketan, eta, beraz, esan dezakegu gizonak eta emakumeak antzeko iritzia dutela senide gertukoak ekartzeari buruz.

Babes ofizialeko etxebizitza (%)

2021




Gizonak

28,6

Emakumeak

22,7




Euskadiko biztanle gehienek uste dute babes ofizialeko etxebizitzarako (BOE) sarbideak etorkin erregularizatuaren esku egon behar duela (% 66,5), eta soilik % 25,5ek uste dute pertsona guztien esku egon behar duela.

Generoaren ikuspegitik, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean; biek dute antzeko pertzepzioa babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskubideari buruz.

Bozkatzea (%)

2021




Gizonak

12,9

Emakumeak

9,3




p15f

Euskadiko biztanle gehienek (% 75,7) uste dute bozkatzeko eskubidea izan behar dutela administrazio-egoera erregularra duten etorkinek; iritzi hori mantendu egin da 2020arekin alderatuta. Gainera, % 8,7k uste dute ez litzatekeela horrela izan behar inolaz ere, eta % 11,0k uste dute unibertsala izan beharko lukeela.

Datuak generoaren ikuspegitik aztertuta, ez da ikusten desberdintasun esanguratsurik gizonak eta emakumeak boto-eskubideari buruz duten pertzepzioan.


Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek? (%)



Euskadiko biztanleen erdiak baino gehiagok uste dute etorkin guztiek doako sarbidea izan beharko luketela bai lanbide-heziketara (% 66,8) eta bai gaztelania (% 66,5) nahiz euskarako (% 64,8) eskoletara. Bestalde % 44,3k uste dute jatorrizko hizkuntzako eskolak jaso beharko lituzketela doan.

g16

Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek doan izan beharko lituzkete zerbitzu hauek? (%)




Bilakaerari begiratuta, euskal gizarteko iritzi publikoa egoeraren erritmo berean aldatuz joan da. Hortaz, krisialdi ekonomikoa baino lehenagoko urteetan, euskal herritar gehiagok uste zuten etorkin guztiek zerbitzu horiek (gaztelaniako doako eskolak, euskarakoak, jatorrizko hizkuntzakoak eta lanbide-heziketako ikastaroak) izan beharko lituzketela. Alabaina, 2012an, krisialdi ekonomikoak Euskadin gogorren jo zuenean, behera egin zuen jarrera horren aldekoen kopuruak. 2013 eta 2018 artean balio horiek berreskuratu ziren; 2019an atzera egin zuten berriz, eta, 2020an, berriro hobetu ziren.

Azken urte honetan, hobetu egin da zerbitzu horietarako sarbidearen aurreko jarrera, gaztelaniazko eskoletan izan ezik, non Euskadiko biztanleen hautemateak atzera egin duen arinki.

g16

Lanbide-heziketako ikastaroak (%)

2021




Gizonak

65,5

Emakumeak

68,1



g16a


Euskal gizartearen gehiengoak uste du etorkinek doan jaso beharko lituzketela lanbide-heziketako ikastaroak, edozein administrazio-egoeratan daudela ere (% 66,8). Bestalde, % 30,2k uste du legeko administrazio-egoeran daudenek bakarrik izan beharko luketela aukera hori.

2004 eta 2021 urteen artean lanbide-heziketako ikastaroetarako sarbideak unibertsala izan behar duela uste duten pertsonen ehunekoak gora egin du nabarmen (+28,4 puntu).

Generoari erreparatuz, zenbakietan alde txikiak dauden arren, ezin da esan gizonen eta emakumeen artean desberdintasun estatistiko esanguratsurik dagoenik: antzeko pertzepzioa dute.

Gaztelaniako eskolak (%)

2021




Gizonak

66,2

Emakumeak

66,8



g16b


Euskal gizartearen gehiengoaren ustez, etorkin guztiek doan izan beharko lituzkete gaztelaniako eskolak (% 66,5), eta iritzi hori gero eta finkatuago dago euskal gizartean. Beste zenbaitek uste dute legezko egoeran daudenenak bakarrik izan beharko lituzketela doan eskola horiek (% 26,0), edo inork ez lituzkeela izan beharko (% 5,5).

Bilakaerari dagokionez, 2004 eta 2020 artean handitu egin da etorkin guztiek sarbidea izan beharko luketela uste duten biztanleen ehunekoa, nahiz eta zifra hori arinki murriztu den azken urtean.

Jarrerak generoari erreparatuta aztertuz gero, ez dago alde esanguratsurik estatistiketan. Gizonek eta emakumeek antzeko pertzepzioa dute atzerritar jatorriko pertsonen gaztelaniako eskolak doan jasotzeari buruz.

Euskarako eskolak (%)

2021




Gizonak

65,5

Emakumeak

64,2




Euskal biztanleen gehiengoak (% 64,8) uste du etorkin guztiek izan beharko luketela aukera euskarako eskolak doan jasotzeko. Bestalde, % 27,2ren iritziz, legez dauden pertsonak bakarrik jaso beharko lituzkete, eta % 5,0en iritziz, inork ez.

Bilakaerari dagokionez, 2011. eta 2012. urteetan pertsona guztiek euskarako eskolak doan izatearen aldeko jarrerak indarra galdu zuen. Ondoren, batez ere 2015etik aurrera, ehuneko hori gorantz joan da, eta aurten 2020an baino 2 puntu altuagoa da. Euskal gizartean iritzi hori sendotzen ari dela dirudi.

Euskarako eskolen estatistiketan ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean; antzeko iritzia dute.

Jatorrizko hizkuntzako eskolak (%)

2021




Gizonak

Emakumeak

44,6

44,1



Etorkinek jatorrizko hizkuntzako eskolak doan izateari dagokionez, euskal gizartea banatuta dago: batzuek uste dute etorkin guztientzat aukera unibertsala izan beharko litzatekeela (% 44,3); beste batzuek, legezko egoeran daudenen izan beharko luketela aukera hori (% 19,5); eta beste batzuek, inork ez lukeela izan behar (% 26,0). Hala eta guztiz ere, azpimarragarria da zerbitzu hori doakoa izatearen alde daudenen pertsonen ehunekoak izan duen hazkundea: 26,1 puntu hazi da 2012. urtetik, eta 6,0 puntu 2020. urtetik.

Kasu honetan ere, estatistiketan ez da alde esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean.

4



Bizikidetza-ereduak eta harremanetarako espazioak

- a. Bizikidetza-ereduak
- b. Harremanetarako espazioak

A) BIZIKIDETZA-EREDUAK

Euskal gizartearen harremanen pertzepzioa

Bizikidetza-ereduak

Oro har, euskal gizarteak uste du etorkinekin duen harremana aurreko urteetan izandakoaren antzekoa dela.

Bizikidetza-ereduei eta aniztasunaren kudeaketari dagokionez, euskal gizarteak aniztasun kulturalarekiko zenbait jarrera positibo erakusten ditu, eta ez du uste, esate baterako, etorkinen erlijio-jarduerek arriskuan jartzen dutenik gure bizimodua (2021ean, % 64,3). Hala ere, biztanle gehienek uste dute bizikidetzarako ahaleginak, neurri handi batean, etorkinen esku daudela (% 78,1), eta soilik % 29,5ek uste dute bertakoen esku dagoela. Horrez gain, batzuek uste dute etorkinek gure legediarekin gatazkan sartzen diren kultura eta erlijioaren zatiak alde batera utzi behar dituztela (% 63,5).

Euskal gizarteak oraindik ere kultura anitzeko gizarte bat nahi du, baina asimilazioaren aldeko orientazio argi batekin. Aniztasuna eta hark dakarren aberastasuna onartzen dira, baina gehiengoak uste du


bizikidetzaren aldeko ahalegina, denoi dagokigun arren, batez ere etorkinek egin behar dutela; “asimilazionismo leuna” edo “pixkanakako asimilazionismoa” deritzona, alegia.

Azken urtean gero eta gehiago dira uste dutenak etorkinek bizitza kulturala aberasten dutela, baina, aldi berean, gehiengoak dira pentsatzen dutenak hobe dela harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea, edo guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.

(Oker izendatutako) bigarren belaunaldi gisa ezagutzen diren horien kasuan, euskal herritarrek beren parekotzat hartu ohi dituzte atzerritar jatorriko gurasoak dituzten pertsona horiek, eta ez dute uste etorkizunean arazorik sortuko denik aniztasuna gaizki kudeatzearen ondorioz.

Udalerriko edo auzoko bizikidetzagiroa eta harremanak


Otik (oso txarra) 10era (bikaina) bitarteko puntuazioa



Euskadiko biztanleek hautematen duten bizikidetzagiroa hobetu egin da 2014az geroztik, eta 2021ean batez besteko balorazioa 6,61 puntukoa izan da, orain arteko zifra handiena. Horrenbestez, euskal biztanleen eta atzerritarren arteko giroaren pertzepzio subjektiboa pixkanaka hobea dela esan daiteke.

Estatistiketan ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean; antzeko iritzia dute.

Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko harremanak, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da? (%)




g8

Harremanak duela urtebete zeudenen ia berdinak direla pentsatzen dute gehienek (% 71,2). Nolanahi ere, pixka bat gehiago dira hobera egin dutela uste dutenak (% 14,7) txarrera egin dutela irizten diotenak baino (% 12,0). Estatistikaren ikuspuntutik, ez dago desberdintasun estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

Bilakaerari dagokionez, aipagarria da Euskadin krisialdi ekonomikoak eragin handiena izan zuen garaia (2011-2012), garai hartan jo baitzuen goia harremanek txarrera egin dutela uste zutenen ehunekoak % 31,8. Geroztik, egungo krisi soziosanitarioaren egoera alde batera utzita, datuak hobetu egin dira, garrantzirik gabeko aldaketa numerikoren batekin.

Bizikidetza-ereduak. Balorazioa (%)



Inkestari erantzun diotenen % 88,6k dio euskal gizartearentzat hobe dela guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea.


Bestalde, euskal gizartearen % 77,2k uste du beste talde etnikoetako atzerritar jatorriko immigranteek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela.

Euskal herritarren erdiak baino gehiagok (% 66,3) pentsatzen du hobe dela bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea.


Azkenik, gehiengoak (% 64,3) ez du uste immigranteen erlijio-jarduerek euskal biztanleria arriskuan jartzen dutenik.

Bizikidetzaren ereduak. Balorazioa (adostasun, %)


Blitzta kulturala aberasten dute




Hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea



Hobe da guzti-guztiok harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea



Beren erlijio-jarduerek arriskuan jartzen dute gure bizimodua




g19b, 19c, 19e, 19h

Esan daiteke 2004tik 2021era bitartean, oro har, gora egin dutela bizikidetzaren eredu “asimilazionista leunaren” (dekantazio bidez, ez inposaketa bidez) aldeko posizioak.

Idea, adibidez, iritzi hauetan islatzen da: “hobe da guztiok ohitura eta usadio berberak izatea” eta “hobe da guztiok harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea”. Azken urteotan, gero eta gehiago dira baieztapen horien aldekoak.


Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea (%) (*)

2021



Gizonak
87,8

Emakumeak
89,5



g19c


Dirudenez, argi dago euskal herritarrek kultura arteko bizikidetzara eta aniztasunara Euskadiko hizkuntzen ezagutzan oinarritzen dituztela: hori uste dute % 88,6k. Gainera, azken urteetan ikusi dugun joera gorakorriari eutsi zaio.

Generoaren arabera berezita, ez dago gizonen eta emakumeen arteko alde esanguratsurik estatistiketan.

(*) 2004. eta 2007.-2011. urteetako Barometroetan: Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, hizkuntza bera hitz egitea.

Beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dute (%)

2021



Ed/Ee
Kontra
Ez ados, ez kontra
Ados


Gizonak

79,0

Emakumeak

75,4

g19h




Euskal herritar gehienek iritziz, beste herrialde eta kultura batzuetako pertsonak etortzeak EAEko bizitza kulturala aberastu du (% 77,2 dago horrekin ados). Hau da, teorian, badirudi euskal gizartea beste kultura batzuetara irekita dagoela. Bilakaerari dagokionez, 2004. eta 2010. urteen artean behera egin zuen immigranteek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dutela uste dutenen ehunekoak; 2017az geroztik ikuspuntu horrek gora egin du etengabe.

Generoaren arabera, emaitzek adierazten dute ez dagoela desberdintasun nabarmenik ikuspuntu estatistikotik; beraz, baieztatu dezakegu ez dagoela desberdintasunik gizon eta emakumeen artean.

Euskal gizartearentzat hobea da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea (%)

2021



Ed/Ee
Kontra
Ez ados, ez kontra
Ados


Gizonak

68,7

Emakumeak

64,2

g19b




Euskal herritar gehienek uste dute euskal gizartearentzat hobea dela denok ohitura eta usadio berberak izatea (% 66,3).

Bilakaerari dagokionez, 2004ko eta 2021eko datuak alderatuz gero, ikusten dugu ehunekoa nabarmen aldatu dela, eta 22,5 puntu igo dela ordutik.

Generoaren arabera, kasu honetan ere ez dugu desberdintasun estatistiko nabarmenik ikusi gizon eta emakumeen artean. Bi generoen hautematea antzekoa da integrazio-prozesuari dagokionez.

Immigranteen erlijio-jarduerak arriskuan jartzen dute gure bizimodua (%)

2021




Ed/Ee
Kontra
Ez ados, ez kontra
Ados

Gizonak

0,9

Emakumeak

1,9




g19e

Euskal gizartearen gehiengoak (% 64,3) ez du uste immigranteen erlijio-jarduerak gure bizimodua arriskuan jartzen dutenik. Bestalde, biztanleen % 25,4k hainbat beldur dituzte: ehuneko horrek nabarmen egin du gora aurreko urtearekin alderatuta (+16,2 puntu).

Ikuspuntu estatistikotik, emakumeek isilago jokatu dute (% 1,9k ez daki edo ez du erantzun) erlijio-jarduerak gure bizimoduan izan dezaketen eraginaren inguruan galdetu ondoren.

Bizikidetzaren ereduak. Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (%)



g19a, 19g, 19i, 19l

Euskal gizartearen gehiengoarentzat, *a priori*, bizikidetzarako ahaleginak partekatua izan behar du (% 82,3).


Nolanahi ere, gehiengoaren iritziz, egokitzapen-ahaleginik handiena etorkinek egin behar dute (% 78,1).

Aldiz, oso gutxi uste dute ahalegin hori bertako biztanleek egin behar dutela (% 29,5).


Era berean, gehiengoak uste du etorkinek albo batera utzi behar dituztela beren erlijio edo kulturako alderdiak, baldin eta "gure" legediarekin gatazkan badaude (% 63,5).

Bizikidetzaren ereduak. Aniztasunaren kudeaketaren balorazioa (ados, %)


Etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren alderdiei uko egin




Hemengoek ahalegindu



Guztien ahalegina



Etorkinek ahalegindu




g19a, 19g, 19i, 19l

Bilakaerari dagokionez, euskal biztanleen gehiengo handia izaten jarraitzen badute ere, azken urtean apur bat jaitsi da bizikidetzaren ahalegin partekatua emaitza izan behar dela uste duten pertsonen ehunekoa.

Alabaina, jarrera horrek ez gaitu nahasi behar; izan ere, ahalegina nork egin behar duen zehazten denean, gehienek uste dute immigranteek egin behar dutela. Bestalde, 2021ean hazi egin da nabarmen ahaleginak bertako biztanleek egin behar dituztela uste dutenen kopurua.

Bizikidetza hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalegin bat, bai pertsona atzerritarrek, bai hemengoek ere (%)

2021




Gizonak

85,3

Emakumeak

79,6




g19/

Euskal gizarteak badaki zeinen garrantzitsua den guztiok ahalegina egitea, bai atzerritarrek bai hemengoek: % 82,3k uste du, bizikidetza hobetu nahi bada, batzuek zein besteek ahalegindu behar dutela. Dena den, ahalegina ez da modu simetrikoan egiten, etorkinak baitira integrazio-prozesuaren karga eraman behar dutenak, lehenago ikusi dugun moduan.

Generoari erreparatuta, ez dago estatistiketan alde esanguratsurik.

Euskadin bizikidetza hobetzeko, **immigranteak** gure ohiturak eta usadioak hartzen **ahalegindu** beharko lirateke (%)

2021




Gizonak

77,7

Emakumeak

78,6





Arestian aipatu dugun moduan, euskal biztanleen gehiengoarentzat, bizikidetza on bat eraikitzeko oinarria immigranteek gure ohiturak eta tradizioak hartzeko (% 78,1) ahalegina egitea da.

Estatistiketan ez dago alde esanguratsurik generoari erreparatuta.

Erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar diete (%)

2021




Euskal herritarren beste jarrera batzuen ildo beretik, kasu honetan ere gehiengoak (% 63,5) uste du, neurri handiagoan edo txikiagoan, erabat onartuak izateko, etorkinek uko egin behar dietela gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei. Hala ere, hori uste duten biztanleen ehunekoa nabarmen murriztu da azken urteetan.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero, ikusten da emakumeek jarrera nabarmen sotilagoa dutela (% 2,2k ez dakite edo ez dute erantzun), gizonak baino zuhurragoak izateko joera dutelako (% 0,3) esatean immigranteek gure legediarekin gatazkan dauden beren erlijioa edo kulturako alderdiak baztertu behar dituztela.

Euskadin bizikidetzat hobetzeko, hemengoek ahalegindu beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen (%)

2021




Gizonak

Emakumeak

31,0

28,1





g19a

Bertako biztanleek ohitura berri horietakoren batera egokitzeko ahalegina egin beharko ote luketen galdetuz gero, euskal biztanleen erdia baino gehiago baieztapen horren horren aurka dago (% 51,0). Hala ere, atzerapen handia izan da 2020ko datuekin alderatuta (-19,5 puntu). Jarrera-aldaketa hori, era berean, bizikidetzat hobetzeko ahalegina bertako biztanleek ere egin beharko luketela uste duten pertsonen kopurua areagotzean ere islatzen da (% 29,5). Ikusiko dugu zer bilakaera duten datu horiek etorkizunean.

Gizonek eta emakumeek antzeko iritzia dute bertako biztanleriak bizikidetzat-prozesuan duen egitekoari buruz, ez dago alde nabarmenik estatistikoki generoaren arabera.

(*) 2007ko Barometroan: Euskadin bizikidetzat hobetzeko, hemengoek gure ohitura eta usadio batzuei uko egin beharko genieke.

Etorkin atzerritarren seme-alabak, hemen, Euskadin jaiotakoak, **euskalduntzat** har daitezkeela uste al duzu? (%)





g36

Azken hamarkadetako migrazio-fluxuen ondorioz, geroz eta gehiago dira Euskadin jaio diren atzerritar gurasoen seme-alabak. Integrazio-prozesuari buruz galdetuta, euskal gizartearen gehiengo handiak uste du euskal jatorriko eta atzerritar arbasoko pertsona horiek euskaldunak direla (% 89,5); aldiz, % 7,5ek uste dute ezetz.

Datuetan sakonduz gero, ez da alde esanguratsurik ikusten estatistiketan gizonen eta emakumeen artean; atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabei buruz duten pertzepzioa antzekoa da.


Pertsona horiek aipatuta, aita eta/edo ama atzerritarra izan arren Euskadin jaiotakoak izanik, etorkizunean, hamabost edo hogeitaz berru, zure iritziz **gizarteak arazoak izan al ditzake** atzerritar jatorriko kolektiboren batekin?(%)



Belaunaldi berriekin jarraituz, euskal biztanleriaren bi herenek uste dute etorkizunean ez dela gatazkarik sortuko gizartearen aniztasun hori kudeatzean (% 66,8). Ildo horretan, ikusten dugu urteak igaro ahala euskal herritarren pertzepzioa nabarmen hobetu dela. Zehazki, hori uste duen populazioaren ehunekoa 31,6 puntu igo da 2018ko datuarekin alderatuta, orduan galdetu baikenuen lehengo horri buruz.

Datuak generoari erreparatuta aztertuz gero, kasu honetan ikusten da emakumeek joera askoz handiagoa dutela gizonek baino etorkizunean izan daitezkeen arazoei buruzko iritziz jakinik ez adierazteko (% 9,3).

B) HARREMANETARAKO ESPAZIOAK




Aurreko urteko datuekin alderatuta, euskal herritarrek begi hobez ikusten dituzte atzerritar jatorriko pertsonen ezaugarriak.

Euskal biztanleek begikotasun-maila handiagoa dute kulturalki, politikoki edo sozialki hurbilago dauden kolektiboekiko, hala nola Argentinako edo Europar Batasuneko pertsonetikiko. Begikotasun-maila txikiagoa dute kulturalki urrunago dauden jatorriekiko, Magreb edo Errumaniarekiko, kasurako.

Era berean, islamarekiko konfiantza-maila igo egin da, eta serieko balio altuena du 2021ean.

Azkenik, komunikabideek migrazio-fenomenoa lantzeko duten moduari dagokionez, euskal gizartea zatituta dago.

Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta? (%)




g24


Bertako biztanleria eta etorkinena alderatzean, nortasun-ezaugarri estereotipatuei dagokienez, gehien-gehienek uste dute berdinak direla alderdi gehienetan (adeitsuak, zintzoak eta langileak), matxismoari dagokionez izan ezik. Galdeketa egindako pertsonen % 52,3k uste du etorkinak matxistagoak direla bertakoak baino.

Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, Euskadikoekin alderatuta? Erantzun-aukera: Euskadikoak bezain....(%)


Adeitsuak




Zintzoak



Langileak



Matxistak




Euskal gizarteak aztertutako ezaugarriei buruz duen ikuspegiak nahiko egonkor eutsi dio 2009tik gaur egunera arte.

Akaso, euskal gizarteak beste jatorrietako pertsonak ezagutzen dituen heinean, desberdintasun gutxiago ikusten dituela zehaztu genezake, matxismoari dagokionez ere bai.

Adeitsuak (%)

2021





g24a

Euskal biztanleen artean, hamarretik zortzik uste dute atzerritar jatorriko pertsonak bertakoak bezain adeitsuak direla, eta, jasotako datuen arabera, geroz eta desberdintasun gutxiago hautematen ditugu adeitasunari dagokionez. Azken urteetan, 2008tik 2021era bitartean, 23,4 puntu hazi da ikuspegi hori dutenen ehunekoa.

Zenbakietan aldeak dauden arren, ezin dugu esan gizonen eta emakumeen pertzepzioan dauden alde estatistikoak esanguratsuak direnik.

Zintzoak (%)

2021




g24d

Euskal herritarrek uste dute atzerriko pertsonak bertakoak bezain zintzoak direla (% 82,0). Ikuspuntu hori dutenen ehunekoa 15,2 puntu hazi da 2008tik gaur egunera arte.

Kasu honetan ere ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean.

Langileak (%)

2021



g24b


Euskal biztanleriak uste du atzerriko pertsonak bertakoak bezain langileak direla (% 81,2), eta gero eta antzekoagoak garela ezaugarri horri dagokionez.

Ehunekoetan aldea dagoen arren, alde estatistikoak ez dira esanguratsuak, eta gizonek eta emakumeek antzeko balorazioa egiten dute atzeritar jatorriko biztanleen lanerako prestasunari buruz.

Matxistak (%)

2021

| Ed/Ee | |
|-----------|-----|
| Gizonak | 2,1 |
| Emakumeak | 7,3 |




g24c

Kasu honetan, euskal biztanleek immigrantei buruz duten irudia matxistagoa da bertakoei buruz dutena baino (% 52,3). Nolanahi ere, hautemate hori nabarmen murriztu da azken bi urteetan (-13,3 puntu 2019aren aldean), eta krisi ekonomikoaren aurreko mailetara iritsi da ozta-ozta. Bilakaerari erreparatuz gero, euskal biztanleek kontu honekiko duten ikuspegia oso aldakorra dela ikus daiteke; edonola ere, urte guztietan ikusten da biztanleen % 50 baino gehiagok erantzun duela etorkinak bertakoak baino matxistagoak direla.

Generoaren arabera, kasu honetan ikusten dugu gizonen aldean emakumeak sotilagoak direla eta ez dutela iritzi zehatzik ematen (% 7,3).

Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila:

Otik (sinpatia eza) 10erako (sinpatia handia) eskala



Euskal biztanleek begikotasun-maila handiagoa erakusten dute antzekoenak diren jatorriekiko, kulturalki gertuen daudenekiko. Begikotasun handiagoa dute, antza denez, pertzepzioaren arabera integratuago dauden edo integratzeko gaitasun nahiz interes handiagoa duten kolektiboekiko.


Begikotasun-maila txikiagoa dago errumaniar eta magrebtar jatorriko pertsonetikiko. Azken kolektibo horrek du, urtetik urtera, begikotasun-maila txikiena. Argi eta garbi, gure gizartetik kulturalki oso urrun dauden jatorriak dira (Maroko, Aljeria, Magreb), unibertso sinboliko oso bestelakoak eta urrunenak dituztenak.

Bilakaerari dagokionez, lehengo jatorri berberak dira oraindik ere begikotasun-maila handiena (Europako eta Argentinako biztanleak) eta txikiena (Magrebeko biztanleak) dutenak. Alabaina, oro har, aztertutako jatorri guztiekiko begikotasun-mailak bere horretan jarraitu du edo hobetu egin da azken urtean.

g20

Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-maila sexuaren/generoaren arabera:


Otik (sinpatia eza) 10erako (sinpatia handia) eskala



Gizonek eta emakumeek sentitzen duten begikotasunari erreparatzen badiogu, estatistikoki ez dago generoaren araberako alde nabarmenik. Hala, esan dezakegu gizonen eta emakumeen arteko portaera ez dela desberdina, eta, ondorioz, zenbakien arteko aldeak ausazkoak direla.

Argentinatik eta Europar Batasunetik datozen biztanleek jarraitzen dute balorazio onena izaten. Beste muturrean daude errumaniar eta magrebtar jatorrikoak; horiek dira balorazio txarrenea eta sinpatia gutxien jasotzen dutenak, bai gizonen artean bai emakumeen artean.

BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK. Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... (%)




Bertakoen eta etorkinen arteko balizko bizikidetzari eta harremanei dagokienez, tolerantzia-maila altuagoa da “etorkin bat zure laneko nagusia izatea” edo “etorkinekin lan egitea edo ikastea” egoerak proposatzen direnean.

Aitzitik, tolerantzia-maila txikiagoa da “etorkin asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea” edo “zure seme-alabak etorkinen seme-alaba asko dauden eskola batera eramatea” egoeretan. 2020. urtearekin alderatuta, tolerantzia galdu dugu bi gai horietan.


g14

BALIZKO BIZIKIDETZA ETA HARREMANAK. Esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen... , sexuaren/generoaren arabera (%)


Auzo berean bizitzea




Eskola




Bikotekidea




Nagusia



Lagunak



Lan egitea/lkastea




Balizko bizikidetzarekin jarraituz, ezin da esan estatistikoki esanguratsua den desberdintasunik dagoenik gizonen eta emakumeen artean: antzekoa da proposatutako balizko bizikidetz-egoerei buruz duten jarrera.

g14

Zure iritziz, komunikabideek nola tratatzen dute, oro har, Euskadiko etorkin atzerritarren fenomenoak? (%)

2021

Modu positiboan Neutraltasunez Modu negatiboan Ed/Ee




Ed/Ee
Modu negatiboan
Neutraltasunez
Modu positiboan

Gizonak

Emakumeak

28,9

36,4




g38

Komunikabideek migrazio-fenomenoari buruz egiten duten jarraipenari buruz galdetzean, euskal gizartea hirutan zatituta dagoela dirudi: % 23,8k uste du lanketa positiboa egiten dutela, % 32,8k uste du lanketa neutroa egiten dutela eta beste % 37,5k uste du immigrazioarekiko ikuspegi negatiboa eskaintzen dutela. Ildo horretan, ikusten dugu 2020az geroztik komunikabideek negatiboki tratatzen dituztela uste duten pertsonen ehunekoa 9,9 puntu igo dela.

Datuak generoaren arabera banakatuta, emakumeek askoz ere gehiago antzematen dute komunikabideek immigrazioaren tratamendu neutroa egiten dutela (% 36,4).

Islamarekiko sentimenduari dagokionez, EAeko gizarteak, zure ustez, zer sentimendu erakusten du Otik (erabateko mesfidantza) 10erako (erabateko konfiantza) eskalan?



g27

0 (erabateko mesfidantza) eta 10 (erabateko konfiantza) bitarteko eskala batean, inkesta egin zaienek uste dute euskal gizartearen jarrera islamarekiko erabat mesfidantzazkoa dela: 3,14 puntu eman dizkiote. Aurreko urtearen aldean, euskal gizartearen islamarekiko pertzepzioa apenas hobetu da (+0,02 puntu), eta ia-ia berdin etsi dio.

Generoaren arabera alderatuz, islamari buruz ere ez dugu alde nabarmenik ikusi estatistikoki.

5




Kultura-ereduak mantentzea

KULTURA-EREDUAK MANTENTZEA

Kultura-ereduei eusteari dagokionez, bertako biztanleriak tolerantzia erakusten du zerbitzu bat eskaintzen duten eta/edo kultura-aniztasunaren kanpoko elementutzat edo elementu estetikotzat edo folklorikotzat har daitezkeen alderdiekiko; hala nola, immigranteek beren denda etnikoak, jatetxe exotikoak edo elikadura-dendak irekitzea.

Merkataritza-errealitate hori positibotzat ikusten da, eta gehienek onartzen dute. Hala ere, tolerantzia-maila txikiagoa da kulturaztasunaren berezko elementuak aintzat hartzean, hala nola beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea edo beren irakaskuntza-zentroak izatea...

Atzerritar jatorriko biztanleen kultur-ereduen aurreko tolerantzia-maila (%)



g18


Aztertzen badugu zer tolerantzia-maila duen euskal biztanleriak atzerritar jatorriko pertsonak hemen finkatzearen edo kultura-eredu batzuei eustearen ondorioz gertatu ohi diren egoera berriekiko, ikus dezakegu onarpen handiena saltokiak, jatetxeak eta elikadura-establezimenduak irekitzeak duela.

Hori horrela, beste kultura batzuetako jatetxeak edo saltokiak irekitzearekin lotutako aniztasuna oso ondo baloratzen du euskal gizarteak.


Ikus daiteke gehiago hartzen direla kontuan kultura-alderdi exotiko eta azaleneoak, sakonagoak eta funtsezkoagoak direnak baino: beren irakaskuntza-zentroak izatea, beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea edo beren jantziekin jantzea, adibidez.

Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-mailaren bilakaera (% “ondo iruditzen zait”)


Jatetxe exotikoak irekitzea




Haien dendak irekitzea



Berariazko elikadura-dendak izatea



Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea




2008tik 2021era bitartean, asko hobetu da kultura-eredu azalekoenekiko tolerantzia-maila (beren jatetxe eta dendak irekitzea eta berariazko elikadura-dendak izatea), bai eta haien artean beren hizkuntza erabiltzearekiko tolerantzia-maila ere.


g18a, 18b, 18d, 18h

Etorkinen kultura-ereduekiko tolerantzia-mailaren bilakaera (% “ondo iruditzen zait”)


Plaza eta espazio publikoak hartzea




Jatorrizko herrialdean bezala janztea



Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea



Haien ikastetxe pribatuak izatea




g18c, 18e, 18f, 18g

Euskal gizarteak hain begi onez ikusten ez dituen kultura-ereduak dira haien ikastetxe pribatuak izatea, haien erlijioetako tenpluak eraikitzea eta jatorrizko herrialdean bezala janztea.

Sukaldaritza exotikoa duten jatetxeak irekitzea (%)

2021




Gizonak

78,4

Emakumeak

80,5




Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea da euskal gizarteak ondoen onartutako etorkinen lekukotze-erduetako bat: 2021ean, biztanleen % 79,5ek onartzen du.

Generoari erreparatuta, emaitzetan ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusten, eta esan dezakegu ez dagoela desberdintasunik gizonen eta emakumeen sukaldaritza exotikoko jatetxeak zabaltzeari buruz egiten duten balorazioan.

Haien dendak irekitzea (%)

2021




Ed/Ee
Gaizki
Berdin
Ondo

Gizonak

78,0

Emakumeak

78,0




g18a

Datuen bilakaerari erreparatuz gero, haien dendak irekitzearekiko tolerantzia-maila nabarmen hazi da, eta 2008tik gaur egun arte 25,8 puntu igo da. Etapaka, onarpen-maila altua bada ere, batez ere 2017. urtetik aurrera egin du hobera.

Estatistikaren ikuspegitik, ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen iritzien artean; biek antzera hautematen dute atzerritar jatorriko biztanleek beren dendak irekitzea.

Berariazko elikadura-dendak izatea (%)

2021




Ed/Ee
Gaizki
Berdin
Ondo

Gizonak

73,2

Emakumeak

72,2




g18d

Euskal herritarrek tolerantzia-maila altuagoa dute utilitaristagoak diren kultura-ereduekiko edo praktikekiko, hala nola berariazko elikadura-dendak izatea. 2008 eta 2021 bitartean, 23,6 puntu hazi da horien onartze-maila.

Aurreko bi kasuetan bezala, berariazko elikadura-dendak irekitzeari dagokionez ere ez dago alde estatistiko esanguratsurik generoari erreparatuta; gizonen eta emakumeen kopuruen arteko aldeak ausazkoak dira.

Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea (%)

2021




Ed/Ee
Gaizki
Berdin
Ondo

Gizonak

69,0

Emakumeak

69,0




g18b

Euskal biztanle gehienek onartzen dute atzerritarrek elkarren artean beren hizkuntza erabiltzea, nahiz eta ehuneko hori murriztu egin den aurreko urtearen aldean (-6,0 puntu). Generoari erreparatuta, gizonak eta emakumeek antzeko pertzepzioa dute, eta estatistiketan dauden aldeak ez dira esanguratsuak.

Ocupen plazas y espacios públicos (%)

2021




Ed/Ee
Gaizki
Berdin
Ondo

Gizonak

65,2

Emakumeak

62,6




Inkestei erantzundako pertsonen % 63,8ri ondo iruditzen zaio atzerritar jatorriko biztanleek plaza eta espazio publikoak hartzea, % 26,3ri berdin zaio, eta % 9,3ri iruditzen zaio. 2015az geroztik, plazak eta espazio publikoak okupatzearekiko tolerantzia-maila nabarmen hobetu da. Ematen du euskal biztanleria ohitzen ari dela atzerritarrek publikoki presentzia izatearekin.

Kasu honetan ere generoa ez da aldagai esanguratsua estatistiketan; ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean.

Jatorrizko herrialdean bezala janztea (%)

2021




Ed/Ee
Gaizki
Berdin
Ondo

Gizonak

Emakumeak

57,8

57,2




g18c

Janzkera kultura-nortasuna adierazteko modu bat da. Alde horretatik, euskal biztanleen % 57,5i ondo iruditzen zaie beren jatorrizko herrialdean bezala janztea, % 18,5i gaizki iruditzen zaie, eta % 22,0ri berdin die. Hori horrela, ikusten dugu gai horri dagokionez azken bi urteetan euskal biztanleen tolerantzia-maila nabarmen hobetu dela.

Gizonen eta emakumeen iritzien arteko desberdintasunak aztertuta, ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusten bien artean. Kasu honetan ere, zenbakien arteko aldeek ez dute gizonen eta emakumeen arteko funtsezko desberdintasunik adierazten; kasualitatearen emaitza dira.

Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea (%)

2021




Gizonak

47,7

Emakumeak

48,2




Haien erlijioetarako tenpluak eraikitzearen gaiari buruz galdetutakoan, euskal gizartearen ia erdiak ondo deritzo horiek eraikitzeari. Hala ere, beste erdia gaizki iruditzen zaien (% 24,8) eta berdin zaien (% 25,7) artean banatzen da. Bilakaerari dagokionez, tenplu horiekiko tolerantzia-maila murriztu egin da aurreko urtearen aldean, baina % 50etik gorakoa da oraindik.

Datuak generoari erreparatuta aztertuz gero, ez da alde esanguratsurik ikusten gizonek eta emakumeek erlijioetako tenpluak eraikitzeari buruz duten iritziaren artean.

Haien ikastetxe pribatuak izatea (%)

2021




Gizonak

41,8

Emakumeak

37,7





g18f

Atzerritar jatorriko biztanleek ikastetxe propioak izateari buruz galdetuta, zatiketa dago iritzien artean: batzuei ondo iruditzen zaie (% 39,7), eta beste batzuei gaizki (% 36,2).

Hemen ere ez dago alde estatistiko esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)


Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak besteko janzkera-ohitura batzuk sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzi duzun jakin nahi genuke



g13

Euskadira beste kultura eta erlijio batzuk iristeari dagokionez, euskal biztanleriari janzteko modu desberdinei buruz galdetutakoan, gehien-gehienei ez zaie egokia iruditzen burka janztea (% 77,7), ezta nikaba janztea ere (% 72,8), aurpegia estaltzen duten jantziak biak. Txadorra jantzita eramatearen inguruan iritzi desberdinak badaude ere, gehiengoak ontzat ematen du (% 60,3).


Tunika, txilaba, kipa eta hijabari dagokienez, ematen du herritarrek ez dutela eragozpenik: gehienei jantzi egokiak iruditzen zaizkie.

BILAKAERA. Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)

Datuak generoaren arabera aztertuta, ez dago alde nabarmenik estatistikoki, hau da, ezin dugu esan genero batek edo besteak jarrera irekiagoa edo fidagaitzagoa duenik janzteko modu desberdinekiko. Gizonek zein emakumeek antzeko iritzia dute.

g13

BILAKAERA. Tolerantzia-maila: janzkera-ohiturak (%)




g13

2017 eta 2021 artean, tolerantzia handiagoa dago txadorrerekiko (+15,2 puntu), hijabarekiko (+13,1) eta kiparekiko (+12,5). Nikabarekiko (+11,4) edo burkarekiko (+7,6) tolerantzia-maila ere hobetu egin da, baina gehienek baztertu egiten dituzte.

Bestalde, txilaba (+10,3) eta tunikaren (+3,4) onarpena ere hobetu egin da 2019az geroztik.

6



Estereotipoak


ESTEREOTIPOAK

Atal honetan, euskal herritarren artean zabalduen dauden etorkinei buruzko estereotipoak aztertzen dira; praktikan, estereotipo horietako askok bizikidetzeta eta EAEn bizi garen pertsona guztion integrazio arrakastatsua oztopatzen dute.

Presentzia handiena duten estereotipo eta aurreiritzien artean, gizarte-laguntzekin lotutakoak nabarmentzen dira beste guztien gainetik. Zaila da estereotipo horiei aurre egitea; izan ere, gizartean oso errotuta daude, eta haien onarpen-egitura ia suntsiezina da.

Bilakaerari erreparatuta, aztertutako estereotipo gehienak (hamalau) indarra galtzen joan dira. Beheratze hori orokortua izan da, baina nabarmenagoa izan da zenbait estereotipotan, hauetan, besteak beste: “Lana kentzen digute”, “Atzerritarrek langabezia handiagoa izatea dakarte”, “Onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik”, “Ez dute hemen gizarteratu nahi”, “Matxismoa areagotzen du”, “Soldaten zenbatekoak behera egiten du”, “Zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino”, “Atzerritar immigranteak egoteak segurtasun-falta eta delinkuentzia eragiten ditu”.

Estereotipo eta zurrumurru nagusien sailkapena (%)




g6a, 6b, 6g, 6h, 6i, 6j, 6k, 6l, 6m, 19d, 19e, 19f, 19j, 19m

Herritarrei gizartean zabaldua dauden estereotipo eta zurrumurru nagusiak zein diren galdetu zaienean, ikusi da hauek direla euskal gizartean errotuen daudenak: “babes-sistemaren onura jasotzen dutela” eta “BOE-ak eskuratzen dituztela”.

Alderantziz, hauek dira gutxien zabaldua daudenak: “arauak ez dituztela ezagutzen eta ez dutela gizalegez jokatzten”, “lana kentzen digutela” eta “espazio publikoak hartzen dituztela”.

Pertsona etorkinek onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik (%)

2021




Gizonak

1,0

Emakumeak

5,1




g19d

Immigranteek gizarte-babesaren sistematik onura handiegia lortzen dutelako pertzepzioak bere horretan eusten dio iaz nabarmen jaitsi ondoren, eta % 39,3koa da. Bestalde, estereotipo horrekin ados ez dauden kopurua 2,3 puntu igo da, % 40,3ra arte. Barometroarekin hasi ginenetik lehenengoz immigranteek gizarte-babesaren sistematik onura handiegia lortzen dutelako zurrumurruaren aurka daudenak gehiago dira alde daudenak baino.

Atzerritarrek gizarte-laguntzak erabiltzen dituzten moduari buruz galdetzean, emakume gehiagok dute iritzi zehatzik ez adierazteko joera handiagoa (% 5,1ek ez dakite edo ez dute erantzun).

Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte (%)

2021




Gizonak

26,5

Emakumeak

31,9

Ados Ez ados, ez kontra Kontra




g6l

“Etorkinek babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte” estereotipoaren kasuan, gehiago dira ez datozenak bat (% 46,9) ados daudenak baino (% 29,4); % 15,0 ez dago ez ados ez kontra.

Generoari dagokionez, zenbaketan alde txiki batzuk dauden arren, estatistiketan ez dira esanguratsuak.

Atzerriko etorkinen presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu (%) (*)

2021




Ed/Ee
Kontra
Ez ados, ez kontra
Ados

Gizonak

26,5

Emakumeak

31



g6g


Segurtasun faltari eta delinkuentziari dagokienez, inkestari erantzundakoen % 48,1ek ez du uste immigranteak etortzeak segurtasun falta eta delinkuentzia areagotzen dituztenik; % 28,8k baietz uste du, eta % 22,5 ez dago ez ados ez kontra. Bilakaerari dagokionez, ikus dezakegu estereotipo horren sustraiek indar apur bat galdu dutela eta zurrumurru hori gezurtatzen dutenen kopuruak gora egin duela. 2016tik, gehiago dira baieztaopen horrekin ados ez daudenak, ados daudenak baino.

Datuak generoaren arabera aztertuta, kasu honetan ere ez dugu ikusten alde nabarmenik dagoenik. Ez gizonak ez emakumeak ez dute immigranteen presentzia delinkuentzia hazteko aukerarekin lotzen.

(*) 2004. eta 2007.-2009. urteetako Barometroak: Oro har, atzerriko etorkinak iristeak eragin negatiboa du herritarren segurtasunean.

Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria (%)

2021




Gizonak

27,2

Emakumeak

27,4




g6i

Euskal biztanleen ia erdiak (% 45,8) ez dute uste immigrazioak matxismoa eta genero-indarkeria handitzen dituenik; % 27,4k, ordea, bai. 2020ko datuekin alderatuta, ikusten dugu nabarmen murritzten dela estereotipo horren aldeko pertsonen kopurua; aldiz, hazi egin da horren aurka daudela diotenen kopurua.

Datuak generoaren arabera xehatuta, ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen pertzepzioen artean.

Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino (%) (*)

2021




Gizonak

Emakumeak

27,2

24,6



g19f


“Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino” zurrumurruaren aurrean, hamar euskaldunetatik lau baieztapen horren aurka daude. Hain zuzen, ikusten dugu 2010az geroztik zurrumurru horrekin ados daudenen ehunekoak beheranzko joera izan duela. Hori horrela, gaur egun, biztanleriaren % 25,9 daude soilik ados estereotipo horrekin.

Generoaren arabera, hemen ere ez dago alde nabarmenik estatistikoki.

(*) 2004. eta 2007.-2009. urteetako Barometroak: Etorkinek zerga gehiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino.

Etorkinek neurritz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak (%)

2021




Gizonak

17,4

Emakumeak

18,2

Ados Ez ados, ez kontra Kontra




g6k

“Etorkinek neurritz kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak” estereotipoari dagokionez, gehiengoa ez dago ados baieztapenarekin (% 67,8). 2016tik 2021era nabarmen gutxitu egin dira zurrumurru horrekin ados dauden pertsonak (orain % 17,8 dira). Generoari erreparatuta, ez dago alde estatistiko esanguratsurik.

Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila (%)

2021




Gizonak

15,3

Emakumeak

16,3




g6b

Euskal herritarren erdiak baino gehiagok (% 64,7) ez du uste ikasle immigranteek jaitsi egiten dutenik eskoletako hezkuntza-maila; % 15,9 baino ez dago ados zurrumuru horrekin. 2013-2021 aldian gora egin du ikasle immigranteek eskoletako hezkuntza-maila jaisten ez dutela uste dutenen ehunekoak.

Estatistikaren ikuspegitik, gizonak eta emakumeek antzeko pertzepzioa dute immigrazioak hezkuntza-esparruan duen eraginari buruz.

Immigranteek ez dute integratu nahi (%)



2021



Ed/Ee
Kontra
Ez ados, ez kontra
Ados

Gizonak

Emakumeak





g6j

“Immigranteek ez dute integratu nahi” estereotipoari dagokionez, euskal biztanleria ez ados eta ez kontra dauden (% 44,2) eta zurrumurru hori baztertzen dutenen (% 43,0) artean banatuta dago. Azken urteotan, estereotipo horrekin ados dauden pertsonen taldea murriztu egin da, eta bat ez datozenena hazi egin da.

Datuak generoaren arabera aztertuta, ikus dezakegu gizonak jarrera nabarmen fidagaitzagoa dutela (% 48,4), eta emakumeek zalantza gehiago egiten dutela (% 49,5).

Etorkinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte (%)

2021



g6m

Gizonak

Emakumeak

11,5


10,5

“Etorkinek espazio publikoak hartzen dituzte, neurriz kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte” estereotipoari dagokionez, % 11,0 baino ez dago ados horrekin; eta argi dago gehiengoa ez dagoela ados (% 65,7).

Estatistikoki, gizonen eta emakumeen artean ez dago alde esanguratsurik espazio publikoarekin lotutako gaien: gizonen zein emakumeek antzeko iritzia dute.

Immigranteek lana kentzen digute (%)

2021




Gizonak

8,0

Emakumeak

9,9





g6h

Euskal gizarteak argi du ez dagoela ados estereotipo horrekin. Herritarren % 77,0k ez du uste etorkinek lana kentzen digutenik, eta % 9,0k baietz pentsatzen du. 2013 eta 2021 urteen artean behera egin du etorkinek lana kentzen digitela uste dutenen ehunekoak.

Generoaren arabera, zenbakietan alde batzuk badauden arren, ezin dezakegu esan alde esanguratsurik dagoenik estatistikoki gizonen eta emakumeen artean.

Etorkinek ez dituzte arauak betetzen eta ez dute gizalegez jokatzeko (%)



g19m

Gizonak

Emakumeak

8,7

6,7

Estereotipo horrek ez du presentziarik Euskadin. Herritarren % 68,0k ez du uste etorkinek gizalegez jokatzeko ez dutenik eta arauak ezagutzen ez dituztenik; % 7,6k berriz, kontrakoa irizten dio.

Horrez gain, ezin dugu esan gizonen eta emakumeen artean alde estatistiko esanguratsurik dagoenik; gizonak eta emakumeak antzeko pertzepzioa dute.

7



Immigrazio-politika

- a. Sartzea, bizitzen geratzea eta kanporatzea
- b. Erregularizatu gabeko immigranteekiko politika
- c. Babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonetikiko politika
- d. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko politika

IMMIGRAZIO-POLITIKA



Atal honetan, euskal biztanleriaren erantzunen arabera euskal erakundeek zer-nolako immigrazio-politika egin behar duten aztertuko dugu. Horretarako, immigrazio-politikarik egokienari buruz, kanporatzeko arrazoiei buruz eta, batetik, babesa edo asiloa eskatzen duten pertsonekin eta, bestetik, bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin hartu beharreko politikari buruz galdetu diegu bertako herritarrei.

Oro har, euskal herritarrek immigranteen lan-egoerarekin lotzen jarraitzen dute migrazio-politika, eta hori izan da aukera hautatuena. Nolanahi ere, tesi horrek pisua galdu du beste aukera batzuen alde, hala nola lege-betebeharrak betetzea: familia berriz biltzea, ikaslea, errefuxiatua...


Herrialdean sartu ondoren, lana galtzea ez da kanporatzeko arrazoitzat hartzen, eta delitu bat egitea ere ez. Oraindik ere lan-kontratu bat izatea hartzen da atzerritar jatorriko pertsona guztiak erregularizatze

oinarritzat. Are gehiago, gaur egungo osasun-krisiaren testuinguruan, euskal herritar gehienek begi onez ikusten dute egoera irregularran dauden pertsonen ezohiko erregularizazioa, premiazko lanpostuak bete ahal izateko. Beraz, lan-kontratua ezinbesteko baldintza bat da immigrazio “kontrolatu” bat izateko, eta alde batera uzten da komunikabideetan eta diskurtso sozialetan nagusi den irudia; izan ere, diskurtso horietan, migrazio-fluxu masibo eta kontrolrik gabek erakusten dira, “uholde” modukoak balira bezala.

Erefuxiatuen gaiak eragin sozial eta mediatiko handia izan du azkenaldian, eta euskal gizarteak, azken urteetan bezalaxe, jarrera irekia izaten jarraitzen du. Gauza bera esan daiteke bakarrik dauden adingabe atzerritarren kasuan ere.

A) SARTZEA, BIZITZEN GERATZEA ETA KANPORATZEA

Immigrazio-politika euskal herritarren arabera (%) (*)



- Inolako lege-trabarik gabe sartzzen uztea
- Lan-kontratua dutenei bakarrik sartzzen uztea
- Legezko beste baldintza batzuk betetzen dituztenei sartzzen uztea: familia berriz biltzea, ikasleak, errefuxiatuak...
- Erabat debekatzea etorkin atzerritarrak sartzea
- Ed/Ee

g9

(*) 2007.-2011. urteetako Barometroetan: inolako lege-trabarik gabe sartzzen uztea; lan-kontratua dutenei bakarrik sartzzen uztea; erabat debekatzea etorkin atzerritarrak sartzea

Gizonak

34,8

Emakumeak

31,3



Euskal herritarren % 33,0k uste du ez dela inolako lege-oztoporik jarri behar etorkinen sarrera eragozteko. % 60,3k sarrera baimenduko luke, baina baldintza hauekin: laneko kontratu bat izatea (% 43,0) edo bestelako legezko betekizun batzuk betetzea (% 17,3). Bestalde, biztanleriaren % 3,2k erabat debekatuko lukete immigranteen sarrera.

Aurreko urtearekin alderatuta, ikusten dugu nabarmen igo dela pertsonen iritsiera askearen aldekoen ehunekoa, hau da, inolako lege-trabarik gabekoa. Halaber, igo egin da, baita ere, "legezko beste baldintza batzuk betetzen dituztenei sartzzen uztearen" aldekoen ehunekoa.

Generoaren arabera, emaitzek adierazten dute ez dagoela alde esanguratsurik estatistikaren ikuspuntutik; hortaz, baieztatu dezakegu ez dagoela alderik gizonen eta emakumeen artean migrazio-politikak baloratzean.

Delinkuentzia, kanporatzeko arrazoia:

hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdetik kanpora bidali beharko litzateke (%)




Euskal herritarren gehiengoak ez du uste delitu bat egitea etorkinak herrialdetik kanporatzeko arrazoi bat denik (% 54,0). Kanporatzeko arrazoi bat dela uste dutenen ehunekoa jaitsi egin da, eta % 32,5 dago horrekin ados; aurtengoa serie osoko daturik baxuena da.

Estatistikaren ikuspegitik, ez dago alde esanguratsurik gizonek eta emakumeek gai horri buruz duten iritzian.

Langabezia, kanporatzeko arrazoa:

Lanera etortzen diren atzeritarrak denboraldi batez langabezian geratuz gero, kanpora bidaliko beharko lirateke (%)



g6d




Immigrazioaren ikuspegi funtzionalago eta utilitarista batera itzuli arren, euskal gizartearen gehien-gehiengoak ez du uste langabezian geratzen diren immigranteak kanporatu egin behar direnik (% 79,7). 2013. urtearekin alderatuta, horren aurka dauden pertsonen ehunekoa 27,3 puntu igo da.

Generoari erreparatuta, zenbakietan alde txiki batzuk dauden arren, ez dira hain handiak estatistikaren ikuspegitik; beraz, esan dezakegu gizonak eta emakumeak antzeko iritzia dutela.

B) ERREGULARIZATU GABEKO IMMIGRANTEEKIKO POLITIKA

Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak erregularizatu gabeko immigranteekin? (%)



■ Guztiak erregularizatu, "paperak" eman
■ Bitartekoak beren herrialdera itzultzeko
■ Ed/Ee

■ Lana daudenak bakarrik erregularizatu
■ Guztiak kanpora bidali

g10

Gizonak Emakumeak



Euskal gizarteak orain ere lana eta administrazio-egoera erregularra lotzen ditu; horrenbestez, lana dutenen egoera erregularizatzearen alde (bizileku-baimenak ematearen alde) ageri dira: % 45,0ek pentsatzen dute hori. Alabaina, lotura horren pisua murriztu egin da 2020. urtearekin alderatuta (% 56,7).

Bestalde, igo egin da egoera irregularran dauden pertsona guztiak erregularizatu behar liratekeela edo edozein egoeratan daudela ere "paperak eman" beharko litzaiekeela uste duten pertsonen ehunekoa.

Estatistikaren ikuspegitik, ez dago alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean; antzeko iritzia dute immigranteen administrazio-egoerari buruz.

COVID-19ren osasun-krisian, gure inguruko Europako herrialde batzuetan **ezohiko erregularizazioa egin zaie administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko pertsonen lanpostuak urgentziaz betetzeko**. Zenbateraino zaude ados neurri horrekin? (%)


Gizonak

Emakumeak

6,6

3,2

Ados Ez ados, ez kontra Kontra Ed/Ee



g43


Europako herrialde batzuek lanpostuak betetzeko hartutako presazko eta ezohiko neurriei buruz galdetuta, herritar gehienek begi onez ikusten dute neurri horiek hartzea (% 74,0). Aurreko urtearekin alderatuta, neurri mota horien aldeko pertsonen ehunekoa hazi egin da arinki (+1,3 puntu).

Horretatik harago, biztanleen % 12,2 ez daude ez ados, ez kontra; % 4,9k, berriz, neurri mota horien aurka daudela adierazi dute.


Datuak generoaren arabera aztertuz gero, kasu honetan ikusten dugu gizonak (% 6,6) emakumeek baino okerrago ikusten dutela ezohiko erregularizazio-neurriak abian jartzea.

C) BABESA EDO ASILOA ESKATZEN DUTEN PERTSONEKIKO POLITIKA

Eta babes- edo asiloa eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena?



- Mugarik gabe hartu
- Hartu, ihesi dabiltzala egiaztatzen bada
- Hartu, baina urtean kopuru jakin bat baino ez
- Ez hartu, inola ere
- Ed/Ee




Errefuxiatuei harrera egitearen aldeko jarrerak % 35,2 arte igo dira, eta serie osoko daturik handiena da. 50,8k adierazi dute zenbait baldintzarekin hartu beharko liratekeela: dela benetan jazarpena jasaten ari direla egiaztatuta (% 29,8), dela kuota-banaketa eginda (% 21,0).

Bilakaerari erreparatuz gero, babes- edo asilo-eskatzailak mugarik gabe hartu beharko liratekeela uste dutenen ehunekoa igo egin da bigarren urtez jarraian.

Inkestakoei pertsonekin babesari eta asiloari buruz galdetzean, ez da alde estatistiko esanguratsurik ikusi generoari erreparatuta.

D) BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARREKIKO POLITIKA

Ziur asko, badakizu batzuetan iristen direla Euskadira **adingabe atzerritarrek**, pertsona heldu batek lagundu gabe; hau da, tutore edo arduradunik gabe. **Zure ustez, zer jarrera izan beharko lukete euskal administrazioek kasu horietan? (%)**



■ Haien sorlekura itzultzea

■ Ez artatu

■ Artatu, kupo bat bete arte, eta gainerakoak autonomia-erkidegoen artean banatu


■ Lagundu gabeko adingabe atzerritarrek tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzea

■ Ed/Ede

g12


Haien sorlekura itzultzea

Gizonak Emakumeak



Tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzea

Gizonak Emakumeak



Euskal biztanleriaren gehiengoak uste du euskal administrazioek bakarrik dauden adingabe atzerritarrek artatu beharko lituzketela: % 39,2k uste dute kupo bat bete arte artatu beharko lirakeela, eta % 39,0 tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzearen alde daude.

2020an lortutako datuekin alderatuz gero, ikusten dugu igo egin dela kuotetan oinarritutako laguntza eskaintzearen aldekoen ehunekoa, eta, aldi berean, jaitsi egin dela tutoretzapeko etxebizitzak eskaintzearen aldekoen ehunekoa.

Generoari erreparatuta, alde txiki batzuk dauden arren erantzunetan, ez dira esanguratsuak estatistikoki, eta esan dezakegu gizonak eta emakumeak antzeko iritzia dutela.

Lehen hitz egin dugu lagun gabeko atzerritar adingabeez.

Adin-nagusitasunera iristen direnean, hau da, 18 urte betetzen dituztenean, zer uste duzu egin beharko luketela euskal administrazioek? (%)



- Lanik ez badute jatorriko herrialdera itzuli
- Jaramonik ez egin, adin nagusikoak direlako
- Ikasketekin jarraitzeko eta/edo lan bat lortzeko aholku eman
- Etxebizitzarako, ikasketetarako, enplegua lortzeko, egoera administratiboa erregularizatzeko eta abarrerako laguntza-programaren bat ezarri
- Ed/Ee

g39

Jatorriko herrialdera itzuli

Gizonak

Emakumeak

12,5

15,0

Laguntza-programaren bat ezarri

Gizonak

Emakumeak

30,7

31,0

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek adin-nagusitasuna Euskadin betetzeari dagokionez, euskal biztanleriaren gehiengoak uste du aholkularitza eskaini beharko litzaiekeela ikasketa- eta lan-arloan segi eta aurrera jarraitzeko (% 51,2). Hori uste duten pertsonen ehunekoa apur bat handitu da 2020. urtearen aldean (+5,9 puntu).

Biztanleriaren beste heren bat (% 30,8) laguntza-programaren bat abian jartzearekin ados dago. Aldiz, % 13,8k EAEn geratzea lan-munduan sartzearekin lotzen dute.


Estatistikei begiratuta, ez da alde esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean; dauden aldeak kasualitatearen emaitza dira.

8



Tolerantzia-indizea

Tolerantzia-indizea




Euskal biztanleriak 2021ean duen tolerantzia-indizea 66,09 puntukoa da, atzerritar jatorriko pertsonetikiko jarrera neurtzen hasi ginetik izan duen altuena.

2021eko datua 1,1 puntu handiagoa da 2020an lortutakoa baino, eta aurreko urteetako posizioak hobetu dira argi eta garbi. Nolanahi ere, bi datuak salbuespeneko denbora-tarte batean gertatu dira: osasun-pandemia. Hortaz, zalantza dago denboran datuak bere horretan eutsiko ote dion.

Bestalde, grafikoa ikusten denez, ez dago muturreko jarrera duen pertsona-talderik (banaketaren muturretan) edo jarrera polarizaturik. Euskal biztanleriak kurba normala osatzen du, muturreko posizioetan jende gutxi baitago (puntuazio maximoa 91 da eta minimoa 16), eta tarteko posizioetan jende asko. Tarteko puntuazioek atzerritar jatorriko pertsonetikiko jarreretan, pertzepzioetan eta portaeretan dauden argi-ilunak adierazten dituzte.


Tolerantzia-indizearen bilakaera



Azken urte hauetan tolerantzia-indizean lortutako emaitzak oso baldintzatuta eta lotuta egon dira dinamika makroekonomikoekin. Hala, hedapen ekonomikoko garaietan puntuazioak altuagoak izan ohi dira, eta krisi-garaiei konfiantza-galera eta atzerritar jatorriko pertsonetikiko tolerantzia txikiagoa lotzen zaizkie. Lotura hori immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren hasierako faseetan dauden gizarteetan gertatzen da, hala nola euskal kasuan.

Nolanahi ere, COVID-19aren krisiak eragin duen egoeran, lotura hori hautsi egin da: osasun-krisiak Euskadiko eta Espainiako ekonomiaren beherakada eragin duen arren, egoera horrek ez du ekarri atzerritarrekiko tolerantzia txikitzea, baizik eta kontrakoa. Euskal gizartearen indar handiagoa du solidaritate sozialak eta krisiaren aurrean elkartasuna areagotzeak, egoera horrek sortzen duen ziurgabetasunak baino. Ikusteko dago ea azken bi urteetako igoerak (5 puntutik gora 2019aren aldean) finkatuko diren datozen urteetan.


Euskal herritarren tolerantzia-mailaren pertzepzioa (0tik 10era)



Inkestari erantzun diotenen beren buruari eta euskal herritarrei buruz egiten duten autoebaluazioari dagokionez, deigarria da beren iritzia bat datozela gure indizeak euskal gizarteari ematen dion puntuazioarekin. Norberaren eta euskal gizartearen balorazioaren batezbesteko aritmetikoa kalkulatu gero (geure burua posizio hobeetan jartzeko joera daukagu inguratzen gaituen gizarte osoaren aldean), 6,8 puntu lortzen ditugu; datu hori oso hurbil dago gure tolerantzia-indizeak euskal gizarteari ematen dion puntuaziotik (66,1 puntu).

Ikerketa psikosozialeko eskuliburuetan jasotzen denaren aurka —pertsonek beren buruarekiko duten joera kognitiboa aipatzen dute, batez ere gai arantzatsuetan, hala nola xenofobian edo atzerritarrekiko tolerantzian—, euskal biztanleek errealitatearen azterketa nahiko doia egiten dute; izan ere, haien balorazio subjektiboa nahiko bat dator indizearen bidez egindako balorazioarekin.

Puntuazioen bilakaera hamar arloetan, 2008-2021



Oro har, 2020aren aldean, indize orokorra arinki hobetu izana aztertutako dimentsio edo arlo guztietan hobekuntza txikiak gertatu izanari zor zaio.

Euskal gizarteak bi arlotan soilik izan ditu atzerapenak. Bata, euskal jatorriko biztanleriaren (espainiarrak) eta atzerriar jatorrikoen arteko harreman-espazioei buruzkoa da (prestutasuna auzoa, lan egiteko edo ikasteko espazioa partekatze, adiskidetasun mistoak izateko, espazio publikoak partekatze, gure auzoetako fisionomian aldaketak onartzeko eta merkataritza-espazioak banatzeko...), nahiz eta 2019arekin alderatuta hobekuntzak nabarmena izaten jarraitzen duen.

Bestea bizikidetzaren ereduaren arloa da; horietan apenas egon da aldaketarik azken urteetan. Agian, gure nukleo gogorrera jotzen duelako, gizarteratzeko

prozesua eta bizikidetzaren oro har ulertzen dugun moduari “asimilazionismo bigun edo dekantaziozko asimilazionismo” deitu izan diogun jarrerari eusten diogu arlo horretan. Hau da, euskal gizarteak argi du gizarteratzea eta bizikidetzaren ona pertsona guztiek partekatzen duten erantzukizuna dela, eta atzerriarrek egin behar dutela ahalegin handiagoa euskal gizartearen gehiengoaren kultura-jardunetara ohitzeko.

Gure ustez, une egokia izan daiteke euskal erakundeek kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu publiko bat baliatzearen alde egin dezaten argi eta garbi: kulturartekotasuna; izan ere, eredu hori da demokratikoena eta kultura-aniztasuna arrakastaz kudeatzen dela bermatzeko gaitasun handiena duena.

Tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak, 2021

TOLERANTZIA-ATALASE

TXIKIENA

DUTEN PERTSONEN PROFILA

| | Aldagaia | Esang. |
|---|------------------------|--------|
| 45 urte eta gehiago | Adina | .000 |
| Lehen mailako ikasketak | Ikasketak | .000 |
| Katoliko praktikanteak eta ez praktikanteak | Erljioa | .000 |
| Erdaldunak | Hizkuntza | .000 |
| Espainiarra edo ezaxola | Abertzaletasuna | .001 |
| Batez ere espainiar sentitzen direnak | Identitate-sentimendua | .000 |
| Eskuina edo zentro-eskuina | Ideologia | .000 |
| Hilean 1.000 € gehienez | Diru-sarrerak | .009 |
| Gustura ez daudenak | Egoera ekonomikoa | .000 |
| Etxeko lanetan aritutakoak | Lanbidea | .000 |
| Estatus baxua edo ertaina | Estatua | .000 |
| Ezkorrak | Baikortasuna | .001 |
| Aurreikuspen txarrak edo normalak | Etorkizuna | .000 |
| Immigrante asko | Aurzoa | .000 |
| Inolako hartu-emanik ez | Interakzio publikoa | .000 |
| Inolako hartu-emanik ez | Aisialdiko interakzioa | .000 |
| Oso altua | COVID-19ren eragina | .039 |

TOLERANTZIA-ATALASE

HANDIENA


DUTEN PERTSONEN PROFILA

| |
|---|
| 18-44 urte |
| Unibertsitate-ikasketak |
| Agnostikoak, ateoak |
| Euskaldunak |
| Euskal subiranista |
| Batez ere euskaldun edo euskaldun-espainiar |
| Ezkerra edo zentro-ezkerra |
| Hilean 2.500 € edo gehiago |
| Bere egoerarekin gustura daudenak |
| Ikasleak, aktiboak edo langabezia |
| Estatus altua |
| Baikorrak |
| Aurreikuspen onak |
| Immigrante gutxi edo immigranterik ez |
| Hartu-eman handia edo nolabaitekoa |
| Hartu-eman handia |
| Altua, ertaina edo baxua |

Urteotan ohikoa denez, aldagai soziodemografiko, politiko-ideologiko, ekonomiko edo psikosozial gehienek jarrerak baztertzen dituzte aldagai biko harreman batean. Edonola ere, atzerritarrekiko tolerantzia handiagoa edo txikiagoa izatearen atzean dauden faktoreek zerikusi handiagoa dute banakako aldeekin kategorizazio sozialetik lortutakoekin baino.

Aldagai biko moduan bereizteko gai ez diren aldagaiak 2021ean hauek dira: egoitza-lurraldea, sexua, egoitza-habitataren tamaina eta atzerritarrekin izandako harreman pribatuen intentsitatea.

Segmentazio-zuhaitza eta euskal herritarren tipologiak



2021. urtean atzerritarrekiko tolerantzia-eskalan kokapen hobe eta okerragoa izatea ondoen aurreikusten duen aldagaia egoitza-auzoa da (sig. 0.000), eta 2020ko aurreikusle onena zen ideologiari lekua hartu dio, baita ikasketa-mailaren ohiko aldagaiari ere.

2021ean, immigrante gabeko edo immigrante gutxiko auzo edo udalerrri batean bizitzea jarrera toleranteagoa izatearekin lotuta dago; aldiz, atzerritar askoko auzo batean bizitzea jarrera ez hain toleranteekin lotzen da.

Halaber, berezi egiten dute bigarren mailan ikasketen aldagaiak (sig. 0.000) eta aisialdiko erlazioak (sig. 0.000); hirugarren mailan, erlijioak (sig. 0.000 eta 0.000); laugarren mailan, abertzaletasunak (sig. 0.003), estatusak (sig. 0.028), erlazio pribatuak (sig. 0.022) eta aisialdiko erlazioak (sig. 0.011); eta bosgarren mailan, diru-sarrerek (sig. 0.048).

Euskal herritarren tipologiak

- 1. mota** Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituztenak, agnostikoak edo ateoak eta erlazio pribaturen bat dutenak atzerritarrekin: 78,70 puntu dituzte (laginaren % 5,0 dira).
- 2. mota** Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak, agnostikoak edo ateoak eta abertzale subiranistak direnak: 77,55 puntu dituzte (laginaren % 4,5 dira).
- 3. mota** Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituztenak, agnostikoak edo ateoak eta erlazio pribatu handia edo batere ez dutenak atzerritarrekin: 73,90 puntu dituzte (laginaren % 14,5 dira).
- 4. mota** Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak, katolikoak, estatus baxu edo altukoak eta familiaren hileko diru-sarrerak 1.001 eta 2.500 euro artekoak dituztenak: 70,57 puntu dituzte (laginaren % 4,2 dira).
- 5. mota** Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, oinarrizko ikasketak dituztenak eta aisialdian erlazio pribaturen bat dutenak atzerritarrekin: 69,52 puntu dituzte (laginaren % 5,8 dira).
- 6. mota** Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak, agnostikoak edo ateoak eta abertzale subiranistak ez direnak: 68,79 puntu dituzte (laginaren % 13,3 dira).
- 7. mota** Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, unibertsitate-ikasketak dituztenak eta katolikoak direnak: 67,72 puntu dituzte (laginaren % 12,2 dira).

8. mota Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak, katolikoak, estatus baxu edo altukoak eta familiaren hileko diru-sarrerak 1.000 euro baino gutxiagokoak edo 2.500 eurotik gorakoak dituztenak: 67,73 puntu dituzte (laginaren % 5,0 dira).

9. mota Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, oinarrizko ikasketak dituztenak eta aisialdian erlazio pribatu handia edo bat ere ez dutenak atzerritarrekin: 62,61 puntu dituzte (laginaren % 8,3 dira).

10. mota Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, bigarren mailako ikasketak dituztenak, katolikoak eta tarteko estatusekoak direnak: 60,28 puntu dituzte (laginaren % 6,2 dira).

11. mota Immigrante-kopuru esanguratsuko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, eta aisialdian erlazio pribatu handia edo bat ere ez dutenak atzerritarrekin: 58,79 puntu dituzte (laginaren % 5,8 dira).

12. mota Immigrante gutxiko edo immigranterik gabeko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, eta oinarrizko ikasketak dituztenak: 57,01 puntu dituzte (laginaren % 11,0 dira).

13. mota Immigrante-kopuru esanguratsuko auzo edo udalerrietan bizi diren pertsonak, eta aisialdian erlazio pribaturik ez dutenak atzerritarrekin: 41,13 puntu dituzte (laginaren % 4,2 dira).


Oro har, aztertutako aldagaiak bariantza osoaren, hau da, euskal gizartearen jarreraren aldean multzoaren % 37,30 azaltzeko gai dira. Gainerakoak norberaren, nortasunaren edo testuinguruaren arabera ezaugarriei zor zaie.

Azken pilaketa-zentroak, 2021

| | Toleranteen taldea | Anbibalenteen taldea | Uzkurren taldea |
|---------------------------|--------------------|----------------------|-----------------|
| Bolumenaren pertzepzioa | 6,61 | 4,68 | 2,61 |
| Arazoaren pertzepzioa | 9,77 | 9,62 | 8,82 |
| Eragina ekonomian | 7,96 | 6,88 | 4,20 |
| Eragina euskal gizartean | 7,82 | 7,01 | 5,00 |
| Immigrazio-politika | 8,63 | 6,66 | 4,66 |
| Erabateko eraginak | 7,64 | 6,19 | 3,98 |
| Elkarbizitza ereduak | 4,76 | 3,82 | 1,93 |
| Estereotipoak | 7,38 | 5,67 | 3,15 |
| Eskubideei heltzea | 8,89 | 7,47 | 4,90 |
| Harremanetarako espazioak | 8,87 | 7,84 | 5,14 |


Beste urteetan egin den moduan, aurten ere euskal biztanleria hiru multzo handitan banatu dugu: toleranteen taldea, urtero legez hamar arloetan puntuaziorik onena duena; anbibalenteen taldea, tarteko posizioetan geratzen dena; eta uzkurren taldea, arlo guztietan puntuazio eta posizio baxuenak dituen.

Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak)



Hiru taldeek oso portaera desberdina dute aztertutako hamar arloetan, immigrazioa arazotzat hartzen duten arloan izan ezik. Arlo horretan, ez da desberdintasunik hautematen toleranteen eta anbibalenteen taldeen artean, immigrazioa ez baitute arazotzat hartzen. Gainera, uzkurren taldeak, arlo horretan puntu nabarmen gutxiago izan arren, puntuazio handiena lortzen du hor, hots, immigrazioa ez du lehentasunezko gai gisa hartzen. Laburbilduz, euskal gizartearentzat immigrazioa ez da arazo bat.


Taldeen puntuazioak Tolerantzia-indizean, 2021



Euskal gizartean dauden hiru talde handiek —toleranteek, anibalenteek eta uzkurrek— oso jarrera eta portaera desberdinak dituzte (puntuazio desberdinak estatistiketan). Toleranteen taldeak 78,32 puntu lortu ditu, anibalenteen taldeak 65,83 puntu, eta uzkurren taldea eskalaren erdiko puntura iritsi gabe geratu da, 44,28 punturekin.

2020. urtearen aldean, toleranteen taldeak eta anibalenteen taldeak ia ez dituzte jarrerak aldatu; uzkurren taldeak, ordea, jarrera gogortu du eta indizean lortutako puntuazioa 5 puntu inguru murriztu du.


Talde handien puntuazioen bilakaera Tolerantzia-indizean, 2008-2021



Azken urteetako bilakaera aztertuz gero, ikusten dugu tolerantteen taldea posizioa hobetzen joan dela azken urteetan, baita anibalenteen taldea ere. Uzkurren taldeak bilakaera ez hain konstantea dauka, eta azken urteetan gorabeherak izan ditu. 2015ean krisitik atera aurreko unetik, jarrera hobetu dute, baina gorabeherekin. 2021ean, ia 5 puntu galdu ditu 2020ko datuaren aldean.

Edonola ere, taldeen bolumenak izan duen bilakaera azertu beharra dago, eboluzioaren ikuspegi doia izateko. Hurrengo orrialdeetan ikusiko dugu.


Taldeen neurria, 2021 (%)



2021ean, tolerantteen taldeak euskal gizartearen heren bat hartzen du (% 35,83); bolumen hori uzkurren taldeak hartzen duena baino askoz ere handiagoa da (% 19,67). Bestalde, anbibalenteen taldeak euskal gizartearen ia erdia hartzen du (% 44,50).

2020arekin alderatuz gero, tolerantteen taldeak 2020an galdutako kideak berreskuratu ditu (hamar puntu), baina jarrera tolerantreak 3 puntu hobetu ditu 2019aren aldean. Anbibalenteen taldeak kideak galdu ditu (10 puntu); jarrera onenetakoak tolerantteen taldera joan dira, baina uzkurren taldeko 5 puntu berreskuratu ditu, jarrerak hobetu dituztenenak. Eta hori guztia talde gisa posiziorik galdu gabe, 65 puntu inguruko balioetan eutsita. Uzkurren taldeak, bestalde, kideak galdu ditu, hain intoleranteak ez direnak, eta anbibalenteen taldera igaro dira; horrek talde gisa duten posizioa okertu du: talde horrek kideak galtzen dituen aldiro, pertsona intoleranteenak geratzen dira, eta, hori dela eta, talde gisa duten posizioa okertzen da.

Talde handien neurriaren bilakaera, 2008-2021 (%)



Krisi ekonomikoaren ondorengo azken urteetako taldeen bilakaerari erreparatuta, ikus dezakegu toleranteen taldea finkatzen ari dela euskal biztanleen heren baten inguruko talde gisa: urte batzuetan bolumena handitzen du (2017an, 2019an eta 2020an, kasurako), eta beste batzuetan, murriztu (2018an eta 2020an).

Bestalde, anbibalenteen taldeak du kolektibo jendetsuena, eta euskal biztanleen % 40-50en artean daude bertan. Gogorazi behar da talde hori hobetzen ari dela atzerritarrekiko jarreretan eta posizioetan (2009an 49,46 puntu zituen, eta gaur egun, 65,83), nahiz eta argi-itzalen artean mugitzen jarraitu.

Azkenik, uzkurren taldea euskal biztanleen % 20-25 artean finkatzen dela dirudi, eta gorabeherak izan arren, joera positiboa dutela adierazten dute gure indizeko jarrerak eta puntuazioek.


Talde handien ezaugarrien korrespondentzia sinpleen analisi faktoriala, 2021

Toleranteen taldea: beste taldeetan baino nabarmen gehiago 18-44 urteko pertsonekin lotzen da, euskal hiriburuetan bizi direnak, unibertsitate-ikasketak dituztenak, euskaldunak, agnostikoak edo ateoak, ezkerreko ideologiakoak, euskal abertzale subiranistak, identitate-sentimendu espainiarra baino euskalduna dutenak, egoera ekonomikoarekin aseta daudenak, pertsona aktiboak, langabeak edo ikasleak, estatus altukoak, optimistak, etorkizunerako asmo onekoak, erlazio publiko batzuk, erlazio pribatu handiak eta aisialdian erlazio batzuk edo handiak dituztenak atzeritarrekin.

Anbibalenteen taldea: talde honen ezaugarriak, batzuetan ezaugarriak toleranteen taldearekin eta uzkurren taldearekin partekatzen badituzte ere, honako hauek dira: besteak baino nabarmenago 65 urtetik gorakoekin lotzen da, 5.000 biztanle arteko udalerrri txikietan bizi direnak, oinarrizko edo bigarren mailako ikasketak dituztenak, erdaldunak, katolikoak, praktikanteak ala ez, zentro-ezkertiarrak edo zentro-eskuinekoak, euskal abertzale moderatuak, ez abertzaleak edo abertzale espainiarrak, egoera ekonomikoarekin ez gustura ez disgustura daudenak, erretiratuak, estatus baxukoak, gehienbat pesimistak, etorkizuneko asmo normalekoak eta aisialdian erlazioz ez dutenak atzeritarrekin.

Uzkurren taldea: talde hau besteak baino nabarmenago lotzen da 65 urtetik gorako pertsonekin, 20.000-150.000 biztanle arteko udalerrietan bizi direnak, oinarrizko ikasketak dituztenak, erdaldunak, pertsona katoliko ez-praktikanteak, zentro-eskuin edo eskuinekoak, abertzaletasunaren ardurarik ez dutenak, identitate-sentimendu euskalduna baino espainiarra dutenak edo euskalduna bezain espainiarra dutenak, gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak edo egoera horren ardurarik ez dutenak, pertsonak eta etxeak zaintzen dituztenak, estatus baxukoak, gehienbat pesimistak, etorkizuneko asmo normalak edo txarrak dituztenak, arlo publikoan, pribatuan edo aisialdian harremanik ez dutenak atzeritarrekin.

9



Ondorioak

Ondorioak

2021eko Barometroa osasun-pandemiaren salbuespeneko testuinguruan egin da berriro, 2020an bezala. Iaz adierazi genuen eta aurten errepikatu egiten dugu: emaitzek bizi dugun egoeraren eragina izan behar dute, gure ikerketa-jomugetarako garrantzitsuak diren hiru arlotan gutxienez: osasunaren arloa, ekonomiaren arloa eta arlo psikosoziala.

Iaz lortutako emaitzen ildotik, ematen du 2021eko Barometroak adierazten duela euskal gizartea, oro har, jakitun dela egoeraren larritasunaz eta ulerkorragoak, toleranteagoak eta inklusiboagoak izateko unea izateaz EAEn bizi garen pertsona guztiekin, egungo egoera gainditu ahal izateko. Ondorioz, 2021eko Barometroan euskal gizarteak atzerritarrekiko jarrera eta posizio zertxobait positiboagoak agertzen ditu 2020an baino.

Horrez gain, ondorio hauek nabarmendu ditzakegu:

1. Euskal gizarteak arazo garrantzitsuak ditu eta horien artean ez dago immigrazioa: inoiz ez da arazo gisa ikusi, ezta orain ere.
2. Euskal gizarteak atzerritarrekiko duen tolerantzia-mailan eragina izaten jarraitzen du osasun-krisiak eta horren ondorioek. Aurten, tolerantzia-indizearen balioa 2020an lortutako emaitzen ildoan dago, baina zertxobait positiboagoa da: 66,09 puntu.
3. Euskal gizartearen kezka handienak gure ongizate-egoerari mehatxu egiten diotenekin dago lotuta, eta horiek aurreiritzi edo “zurrumuru” nagusietan ikusten dira. Hala eta guztiz ere, euskal gizarteak baztertu egiten du bertakoentzako soilik den gizarte-babeserako sistema bat. Uste du hezkuntza publikoa zein osasuna pertsona guztientzako eskubide unibertsalak direla.
4. Joera positiboa ikusten dugu immigrazioarekiko estereotipo faltsu eta negatiboekin lotuta: oro har, gero eta babes gutxiago dute gizarte-iruditerian.
5. 2021eko Barometroaren datuek atzerritarren kolektibo batzuk estigmatizatuta daudela erakusten jarraitzen dute, batez ere marokoarrak, aljeriarrak edo magrebtarrak, oro har; eta eguneroko bizikidetzan ezinikusiak eta errezeloak pizten jarraitzen dute. Islamarekiko sentimendua ere ez da ona.
6. Bizikidetzaren eredu “asimilazionismo biguna” da; horrenbestez, gizarteratze-prozesuetan immigranteek eta bertakoek ahalegin partekatua egin behar dutela onartu arren, euskal gizarteak immigranteei eskatzen die ahalegin handiagoa egiteko gure ohitura eta tradizioetara egokitzeko. Euskal erakundeek argi eta garbi kulturartekotasunean oinarritutako aniztasuna kudeatzeko eredu publiko baten alde egiteko garaia da.
7. Generoaren arabera, datuek erakusten dute oro har ez dagoela alde nabarmenik euskal gizartean, eta gizonek eta emakumeek antzeko iritzia dutela immigrazioari buruz.

BAROMETROA 2021

JATORRI ATZERRITARRA DUTEN BIZTANLEEN INGURUKO PERTZEPZIOAK ETA JARRERAK

| | |
|------------------------------|--|
| Galdeketa-zenbakia | |
| Data (eguna-hilabetea-urtea) | |
| Udalerria | |
| Probintzia | |
| Inkestagilea | |

Egun on / Arratsalde on. IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokia atzerriko immigrazioarekiko euskal herritarren iritziaz buruzko ikerketa egiten ari da. Horrenbestez, zure laguntza preziatuaren beharra dugu, galdera-sorta bati erantzuteko. Zure erantzunak anonimatu eta sekretupean gordeko direla bermatzen du Unibertsitateak; izan ere, erantzunak multzoan bakarrik aztertuko dira. Kontuan hartu ez dagoela erantzun zuzenik edo okerrik, ez da atzerketa, immigrazioarekin zerikusia duten zenbait galderari buruz zure benetako iritzia jakin nahi dugu bakar-bakarrik.

1. Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak? (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

| | 1º | 2º | 3º |
|---|----|----|----|
| Langabezia | 1 | 1 | 1 |
| Herritarren segurtasun eza | 2 | 2 | 2 |
| Osasuna, osasun-sistema | 3 | 3 | 3 |
| Etxebizitza | 4 | 4 | 4 |
| Arazo ekonomikoak | 5 | 5 | 5 |
| Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak) | 6 | 6 | 6 |
| Korruptzioa eta iruzurra | 7 | 7 | 7 |
| Pentsioak | 8 | 8 | 8 |
| Politikariak, alderdi politikoak, gobernua | 9 | 9 | 9 |
| Arazo sozialak | 10 | 10 | 10 |
| Immigrazioa | 11 | 11 | 11 |
| Emakumeen aurkako indarkeria | 12 | 12 | 12 |
| Hezkuntza | 13 | 13 | 13 |
| COVID-19, koronabirusa, osasun-aleria | 14 | 14 | 14 |
| Beste erantzun batzuk | 15 | 15 | 15 |
| Bat ere ez | 16 | 16 | 16 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 | 0 | 0 |

2. Txartel honetan ageri diren arazoetatik (1. txartela ERAKUTSI) zein dira, zure iritziz, Euskadiko 3 arazo garrantzitsuenak? (IRAKURRI ERANTZUN GUZTIAK ozenki: 3 erantzun gehienez)

| | 1º | 2º | 3º |
|--|----|----|----|
| Delinkuentzia | 1 | 1 | 1 |
| Egoera ekonomikoa | 2 | 2 | 2 |
| Prezioen garestitzea / Inflazioa / Bizi-kostua | 3 | 3 | 3 |
| Zergak | 4 | 4 | 4 |
| Langabezia | 5 | 5 | 5 |
| Terrorismoa | 6 | 6 | 6 |
| Etxebizitza | 7 | 7 | 7 |
| Zor publikoa | 8 | 8 | 8 |
| Immigrazioa | 9 | 9 | 9 |
| Osasuna eta gizarte-segurtasuna | 10 | 10 | 10 |
| Hezkuntza-sistema | 11 | 11 | 11 |
| Pentsioak | 12 | 12 | 12 |
| Ingurumena, klima eta energiari buruzko gaiak | 13 | 13 | 13 |
| Ed/Ede | 0 | 0 | 0 |

3. Euskadin bizi diren jatorri atzerritarreko pertsonen kopurua, zure iritziz,... (2. txartela ERAKUTSI)?

| | |
|----------------------------|---|
| Handiegia da | 1 |
| Nahikoa da | 2 |
| Egokia da | 3 |
| Txikia da | 4 |
| Ez da nahikoa | 5 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 |

4. Euskadin bizi diren 100 pertsonetatik zenbat dira, zure ustez, jatorri atzerritarrekoak (alegia, Espainiatik kanpoko herrialdeetatik etorriak)? (ED/EE=99)

5. Nik esango banizu Euskadin bizi diren pertsonen %11 gutxi gorabehera jatorri atzerritarrekoak direla, berdin pentsatzen al duzu edo... (2. txartela ERAKUTSI)?

| | |
|----------------------------|---|
| Handiegia da | 1 |
| Nahikoa da | 2 |
| Egokia da | 3 |
| Txikia da | 4 |
| Ez da nahikoa | 5 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 |

6. Txartel hau erabilita (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu zenbateraino zauden ados edo ez esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 =erabat kontra; 6 = ez daki/ez du erantzuten):

| | EA | A | E A E K | K | EK | ED EE |
|---|----|---|------------|---|----|----------|
| a) Jendea bizitzera eta lan egitera etortzen denez, oro har, soldaten zenbatekoak behera egiten du. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| b) Ikasle immigranteek jaitsi egiten dute eskoletako hezkuntza-maila | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| c) Etorkinak behar ditugu gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| d) Lanera etortzen diren atzerritarrak denboraldi batez langabezia geratuz gero, kanpora bidali beharko lirateke. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| e) Etorkinei esker, ekonomiak hobera egiten du, bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak betetzen dituztelako. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |

| | EA | A | E A E K | K | EK | ED EE |
|--|----|---|---------|---|----|-------|
| f) Hona etorri den norbaitek delituren bat egiten badu, herrialdeetik kanpora bidali beharko litzateke. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| g) Etorriaren presentziak segurtasun falta eta delinkuentzia eragiten ditu | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| h) Immigranteek lana kentzen digute | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| i) Immigrazioak handitu egiten ditu matxismoa eta genero-indarkeria | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| j) Immigranteek ez dute integratu nahi | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| k) Etorriaren neurriak kanpo erabiltzen dute EAEko osasun-sistema eta kolapsatu egiten dituzte larrialdi-zerbitzuak. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| l) Etorriaren babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eskuratzen dituzte. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| m) Etorriaren espazio publikoak hartzen dituzte, neurriak kanpo eta gaizki erabiltzen dituzte. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| n) Pertsona immigranteek ez lukete inolaz ere jaso behar diru-sarrerak bermatzeko errentarik: hemengo pertsonentzat soilik izan behar lirateke halako laguntzak. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |

7. 0tik 10era bitarteko eskala batean (0 oso txarra, eta 10, bikaina), zenbat puntu emango zenitzioke zure udalerrian edo auzoan bertakoen eta atzerritarren artean dagoen bizikidetzaren harreman-giroari?

| Oso txarra | | | | | | | | | | Bikaina | Ed |
|------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---------|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

8. Euskal herritarren eta atzerriko jendearen arteko **harremanak**, zure ustez, hobera egin du, txarrera egin du, edo duela urtebete bezalakoa da?

| | |
|----------------------------|---|
| Hobera egin du | 1 |
| Berdin jarraitzen du | 2 |
| Txarrera egin du | 3 |
| Ez daki / Ez du erantzuten | 0 |

9. Zure ustez, zer **politika-mota** litzateke egokiena immigranteen kasurako?

| | |
|--|---|
| Inolako lege-trabari gabe sartzen uztea | 1 |
| Lan-kontratuak dutenei bakarrik sartzen uztea | 2 |
| Legezko beste baldintza batzuk betetzen dituzten pertsonen sartzen uztea: familia berriz biltzea, ikasleak, errefuxiatuak... | 3 |
| Erabat debekatzea etorkin atzerritarren sartzea | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

10. Zure ustez, zer egin beharko luke Gobernuak **erregularizatu gabeko immigranteekin**? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

| | |
|---|---|
| Guztiak erregularizatu, "paperak" eman | 1 |
| Lana dutenak bakarrik erregularizatu | 2 |
| Bitartekoak eman guztiak beren herrialdera itzultzeko | 3 |
| Guztiak kanpora bidali | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

11. Eta **babesa edo asiloa** eskatzen duten pertsonekin, zure ustez, zer egitea izango litzateke egokiena? (EZ AIPATU: bat-bateko erantzuna)

| | |
|---|---|
| Mugarik gabe hartu | 1 |
| Hartu, ihesi dabilzala egiaztatzen bada | 2 |
| Hartu, baina urtean kopuru jakin bat baino ez | 3 |
| Ez hartu, inola ere | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

12. Ziur asko, badakizu batzuetan iristen direla Euskadira **adingabe atzerritarrek, pertsona heldu batek lagundu gabe**; hau da, tutore edo arduradunik gabe. Zure ustez, **zer jarrera** izan beharko lukete **euskal administrazioek** kasu horietan? ERAKUTSI 4 txartela eta IRAKURRI 4 ERANTZUNAK)

| | |
|---|---|
| Haien sorlekura itzultzea | 1 |
| Ez artatu | 2 |
| Artatu, kupo bat bete arte, eta gainerakoak autonomia-erkidegoen artean banatu | 3 |
| Lagundu gabeko adingabe atzerritarrek tutoretzapeko etxebizitzetan edo egoitzetan hartzea | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

13. Beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonak EAera etortzeak bestelako janzkera-ohiturak sortzea eragin du. Ohitura horietako batzuei buruz zer iritzirik duzun jakin nahi genuke. Horretarako, zenbait irudi erakutsiko dizkizut, eta gure gizartearen egokiak iruditzen zaizkizun ala ez esatea nahi nuke (5A, 5B, 5C, 5D, 5E, 5F eta 5G txartelak BANAKA ERAKUTSI)

| | Egokia da | Ez da egokia | Ed/Ee |
|------------|-----------|--------------|-------|
| a) Kipá | 1 | 2 | 0 |
| b) Hiyab | 1 | 2 | 0 |
| c) Chador | 1 | 2 | 0 |
| d) Txilaba | 1 | 2 | 0 |
| e) Nicab | 1 | 2 | 0 |
| f) Tunika | 1 | 2 | 0 |
| g) Burka | 1 | 2 | 0 |

14. Orain, zure eta jatorri atzerritarreko pertsonen arteko harreman posible batzuk aipatuko dizkizut. Mesedez, esan kasu bakoitzean ea harreman hori onartuko zenukeen, saihesten saiatuko zinatekeen edo gaitzetsi egingo zenukeen (ERAKUTSI 6. txartela)

| | O | S | G | Segun | Ed/Ee |
|---|---|---|---|-------|-------|
| a) Jatorri atzerritarreko pertsona asko bizi diren auzo edo bloke berean bizitzea | 1 | 2 | 3 | 4 | 0 |
| b) Jatorri atzerritarreko pertsonekin lan egitea edo ikastea | 1 | 2 | 3 | 4 | 0 |
| c) Jatorri atzerritarreko pertsona bat zure laneko nagusia izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 0 |
| d) Zure seme-alabek jatorri atzerritarreko lagunak eramatea etxera | 1 | 2 | 3 | 4 | 0 |
| e) Seme-alabak jatorri atzerritarreko pertsonen seme-alaba asko dauden eskola batera eramatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 0 |
| f) Zure semearen/alabaren neska-laguna/mutil-laguna edo bikotekidea jatorri atzerritarra izatea | 1 | 2 | 3 | 4 | 0 |

15. Orain, bertakoek dituzten zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere egoera beretan **izan behar lituzkete eskubide horiek?** (irakurri eskubideak eta 7. txartela ERAKUTSI):

| | Denek | Legez daudenean | Inork ez | ED |
|---|-------|-----------------|----------|----|
| a) Seme-alabentzako hezkuntza | 1 | 2 | 3 | 0 |
| b) Osasun-zerbitzua | 1 | 2 | 3 | 0 |
| c) Gizarte-laguntza: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, GLL... | 1 | 2 | 3 | 0 |
| d) Babes ofizialeko etxebizitza | 1 | 2 | 3 | 0 |
| e) Senide gertukoena ekartzea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| f) Bozkatzeko eskubidea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| g) Zerbitzu juridikoa | 1 | 2 | 3 | 0 |

16. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek **doan** izan beharko lituzkete zerbitzu hauek (irakurri zerbitzuak irakurri eta 7. txartela ERAKUTSI):

| | Denek | Legez daudenean | Inork ez | ED |
|-----------------------------------|-------|-----------------|----------|----|
| a) Lanbide-heziketako ikastaroak | 1 | 2 | 3 | 0 |
| b) Gaztelaniako eskolak | 1 | 2 | 3 | 0 |
| c) Euskarako eskolak | 1 | 2 | 3 | 0 |
| d) Jatorrizko hizkuntzako eskolak | 1 | 2 | 3 | 0 |

17. Pertsona batzuen iritziz, "osasun-arreta, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar eskuratzeko, bertako jendeak lehentasuna izan behar du, immigranteen aurretik"; eta beste batzuen iritziz, berriz, "pertsona guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak berberak, bertakoak edo immigranteak izan". Zuk zer iritzi duzu horri buruz? (8. txartela ERAKUTSI)

| | |
|--|---|
| Osasun-arreta, gizarte-laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar eskuratzeko, bertako jendeak lehentasuna izan behar du, immigranteen aurretik | 1 |
| Pertsona guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak berberak, bertakoak edo immigranteak izan | 2 |
| Ed/Ee | 0 |

18. Ondo edo gaizki iruditzen zaizu **atzerriko pertsonen...** (banan-banan IRAKURRI)?

| | Ondo | Berdin | Gaizki | Ed |
|---|------|--------|--------|----|
| a) Haien dendak irekitzea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| b) Haien artean beraien hizkuntza erabiltzea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| c) Jatorrizko herrialdean bezala jantzea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| d) Berariazko elikadura-dendak izatea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| e) Haien erlijioetako tenpluak eraikitzea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| f) Haien ikastetxe pribatuak izatea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| g) Plaza eta espazio publikoak hartzea | 1 | 2 | 3 | 0 |
| h) Sukaldaritza exotikoa edo atzerriko sukaldaritza duten jatetxeak irekitzea | 1 | 2 | 3 | 0 |

19. Txartel hau erabilia (3.t xartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1 = erabat ados; 2 = ados; 3 = ez ados ez kontra; 4 = kontra; 5 = erabat kontra; 6 = ez daki):

| | EA | A | EZ A EZ K | K | EK | ED |
|--|----|---|-----------|---|----|----|
| a) Euskadin bizikidetzat hobetzeko, hemengoek ahalegindu beharko lukete etorkinen ohiturak eta usadioak ezagutzen eta horietara egokitzen. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| b) Euskal gizartearentzat hobe da bertan bizi garen guztiok ohitura eta usadio berberak izatea. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |

| | EA | A | EZ A EZ K | K | EK | ED |
|---|----|---|-----------|---|----|----|
| c) Euskal gizartearentzat hobe da guzti-guztiok, immigranteek eta bertakoek, harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| d) Pertsona etorkinek onura handiegia lortzen dute gizarte-babesaren sistematik. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| e) Immigranteen erlijio-jarduerak arriskuan jartzen dute gure bizimodua. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| f) Etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dute gero jasotzen dutena baino. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| g) Euskadin bizikidetzat hobetzeko, immigranteek gure ohiturak eta usadioak hartzen ahalegin du beharko lirateke. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| h) Beste talde etnikoetako etorkin atzeritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten dute. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| i) Erabat onartuak izateko, etorkinek gure legediarekin bat ez datozen beren kulturaren edo erlijioaren alderdiei uko egin behar diete. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| j) Etorkinen presentziak Euskadin langa-bezia handiagoa izatea dakar. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| k) Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpon ditzakete Europara datozen etorkinek. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| l) Bizikidetzat hobetzeko, guztiok egin behar dugu ahalegin bat, bai etorkinek, bai hemengoek ere. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| m) Immigranteak gizarte-laguntzei esker bizi dira eta gehiegi erabiltzen dituzte. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |

20. Esan iezadazu, mesedez, Oti 10era bitarteko puntuazioa duzula, zenbatekoa den munduko herrialde edo eskualde hauetako pertsonenganako sentitzen duzun sinpatia; kontuan izan, 0 sinpatia eza dela eta 10 **sinpatia** handia (9.txartela ERAKUTSI).

| | Sinpatia eza | | | | | | | | | | Sinpatia handia | Ed |
|--|--------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|-----------------|----|
| a) Mendebaldeko Europar Batasuna | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| b) Errumania | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| c) Brasil | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| d) Afrika beltza, Saharaz hegoaldekoa | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| e) Bolivia | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| f) Maroko, Aljeria, Magreb | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| g) Ameriketako Estatu Batuak | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| h) Kolonbia, Ekuador, Peru | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| i) Argentina | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| j) Pakistan, Nepal, Bangladesh | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| k) Txina | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| l) Paraguai | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |
| m) Nikaragua, Honduras, Guatemala (Ertamerika) | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

21. Hurrengo 5 urteetako egoerari begira, **immigrazioak EAEn**, zure ustez, behera egingo du, gora egingo du edo oraingoa bezalakoa izango da gutxi gorabehera?

| | |
|----------------------|---|
| Behera egingo du | 1 |
| Berdintsua izango da | 2 |
| Gora egingo du | 3 |
| Ed/Ee | 0 |

22. Demagun, etorkizunean ere etorkinek EAera etortzen jarraitzen dutela. Zure ustez, nongoa izango da etorkin multzo handiena? Eta bigarren etorkin multzo handiena? Eta hirugarrena? (EZ IRAKURRI, gehienez 3 erantzun)

| | 1º | 2º | 3º |
|--|----|----|----|
| Europar Batasuna (EB24) | 1 | 1 | 1 |
| Gainerako Europar Batasuna (Bulgaria, Errumania eta Kroazia) | 2 | 2 | 2 |
| Ekialdeko Europako gainerako herrialdeak | 3 | 3 | 3 |
| Magreb | 4 | 4 | 4 |
| Saharaz hegoaldeko Afrika | 5 | 5 | 5 |
| Latinoamerika | 6 | 6 | 6 |
| Estatu Batuak eta Kanada | 7 | 7 | 7 |
| Asia | 8 | 8 | 8 |
| Ozeania | 9 | 9 | 9 |
| Bestelako jatorriak | 10 | 10 | 10 |
| Ed/Ee | 0 | 0 | 0 |

23. Txartel hau erabilia (3. txartela ERAKUTSI), esan iezadazu **zenbateraino zauden ados edo ez** esaldi horietan adierazten denarekin (1= erabat ados; 2= ados; 3= ez ados ez kontra; 4= kontra; 5= erabat kontra):

| | EA | A | E A E K | K | EK | ED |
|--|----|---|---------|---|----|----|
| a) Etorkinak iristeak euskararen garapena geldiaraziko du | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| b) Gaur egun euskara nagusi den eremuetan euskaraz gutxiago hitz egingo da etorkinak iristearen ondorioz | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| c) Immigranteak etortzeak euskal nortasuna galtzea ekarriko du | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |
| d) Immigranteak etortzeak geldiarazi egingo ditu abertzaletasunaren helburuak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 0 |

24. Atzerriko pertsonak nolakoak iruditzen zaizkizu, **Euskadikoekin alderatuta** (banan-banan IRAKURRI)?

| | Gehiago | Berdin | Gutxiago | Ed |
|--------------|---------|--------|----------|----|
| a) adeitsuak | 1 | 2 | 3 | 0 |
| b) langileak | 1 | 2 | 3 | 0 |
| c) matxistak | 1 | 2 | 3 | 0 |
| d) zintzoak | 1 | 2 | 3 | 0 |

25. Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki **zein 3 arazok ukitzen zaituzte gehien?** (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)

| | 1º | 2º | 3º |
|---|----|----|----|
| Langabezia | 1 | 1 | 1 |
| Herritarren segurtasun eza | 2 | 2 | 2 |
| Osasuna, osasun-sistema | 3 | 3 | 3 |
| Etxebizitza | 4 | 4 | 4 |
| Arazo ekonomikoak | 5 | 5 | 5 |
| Enpleguarekin lotutako arazoak (prekarietatea, soldata txikiak) | 6 | 6 | 6 |
| Korruptzioa eta iruzurra | 7 | 7 | 7 |
| Pentsioak | 8 | 8 | 8 |
| Politikariak, alderdi politikoak, gobernua | 9 | 9 | 9 |
| Arazo sozialak | 10 | 10 | 10 |
| Immigrazioa | 11 | 11 | 11 |
| Emakumeen aurkako indarkeria | 12 | 12 | 12 |

| | 1º | 2º | 3º |
|---------------------------------------|----|----|----|
| Hezkuntza | 13 | 13 | 13 |
| COVID-19, koronabirusa, osasun-alerta | 14 | 14 | 14 |
| Beste erantzun batzuk | 15 | 15 | 15 |
| Bat ere ez | 16 | 16 | 16 |
| Ed/Ede | 0 | 0 | 0 |

26. Orokorrean hartuta, zure ustez, atzerriko pertsonak etortzeak, ondorio positiboak edo negatiboak eragiten dizkio euskal gizarteari? (erakutsi 9. txartela) Puntuak ezazu, mesedez, 0tik (oso ondorio negatiboak) 10era (oso ondorio positiboak).

| Negatiboak | | | | | | | | | | Positiboak | | Ed |
|------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|------------|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 | |

27. Islamarekiko sentimenduari dagokionez, EAeko gizarteak, zure ustez, zer sentimendu erakusten du 0tik (erabateko mesfidantza) 10erako (erabateko konfiantza) eskalan?

| Erabateko mesfidantza | | | | | | Erabateko konfiantza | | | | Ed | |
|-----------------------|---|---|---|---|---|----------------------|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

28. Eta immigrazioarekiko tolerantzia-eskala batean, zer lekutan jarriko zenuke zeure burua, 0 "gutziz intolerantea" baldin bada eta 10 "oso tolerantea" baldin bada?

| Gutziz intolerantea | | | | | | Oso tolerantea | | | | Ed | |
|---------------------|---|---|---|---|---|----------------|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

29. Eta zein lekutan jarriko zenuke euskal gizartea, 0 "gutziz intolerantea" baldin bada eta 10 "oso tolerantea" baldin bada?

| Gutziz intolerantea | | | | | | Oso tolerantea | | | | Ed | |
|---------------------|---|---|---|---|---|----------------|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

30. Oro har, nolakoak zarela esango zenuke: pesimista edo optimista? 0tik 10era bitarteko eskalan (0 pesimista da, eta 10, berriz, optimista), non kokatuko zenuke zeure burua?

| Pesimista | | | | | | Optimista | | | | Ed | |
|-----------|---|---|---|---|---|-----------|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

31. Zer-nolako eragina ari da izaten egungo krisialdia zuregan? Eman, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa (0 eraginik ez, eta 10, eragin handia).

| Eraginik ez | | | | | | Eragin handia | | | | Ed | |
|-------------|---|---|---|---|---|---------------|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

32. Zure auzoko errealitate soziala laburki azaldu behar bazenu aniztasun etnikoa edo arraza-aniztasuna aintzat hartuz, zer esango zenuke? 0tik 10era bitarteko eskala batean (0k esan nahi du zure bizilagun gehienak EAEn edo Espainian jaiok direla, eta 10ek esan nahi du atzerrian jaiotako jende asko dagoela), non kokatuko zenuke zeure auzoa?

| Hemengoak | | | | | | Immigranteak | | | | Ed | |
|-----------|---|---|---|---|---|--------------|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

33. Pentsatu zure lanegun arrunt batean, jaikitzen zarenetik oheratzen zaren arte; zure ustez, zenbat atzeritarrekin duzu harremana zeure etxean, zure gurasoenean edo zure lagunenean? Ez naiz ari kalean ikusten dituzunei buruz, ez eta harremana beste leku batzuetan duzunei buruz ere.

| | | |
|--|--|--|
| | | |
|--|--|--|

34. Eta egun arrunt baten buruan, zure ustez, zenbat atzerritarrekin duzu harremana beste leku batzuetan? Ez dut esan nahi zenbat ikusten dituzun kalean, baizik eta zenbatekin izaten duzun nolabaiteko harremana lantokian, banketxean, dendetan, garraibide publikoetan, kioskoan, tabernetan edo kafetegietan eta abarretan.

| | | |
|--|--|--|
| | | |
|--|--|--|

35. Zure udalerrian edo auzoan, zenbatean behin izaten duzu harremana eta/edo zenbatean behin ibiltzen zara aisialdian beste herrialde batzuetako jendearekin, atzerritarrekin (ez euskal herritarrekin eta ez espainiarrekin)? (IRAKURRI aukerak)

| | |
|--------------|---|
| Inoiz ere ez | 1 |
| Zenbaitetan | 2 |
| Askotan | 3 |
| Sarri-sarri | 4 |
| Etengabe | 5 |
| Ed/Ede | 0 |

36. Etorकिनen seme-alabak, hemen, Euskadin jaiotakoak, euskalduntzat har daitezkeela uste al duzu?

| | |
|-------|---|
| Bai | 1 |
| Ez | 2 |
| Ed/Ee | 0 |

37. Pertsona horiek aipatuta, aita eta/edo ama atzerritarra izan arren Euskadin jaiotakoak izanik, etorkizunean, hamabost edo hogeitaz urte barru, zure iritziz gizarteak arazoak izan al ditzake atzerritar jatorriko kolektiboren batekin?

| | |
|---------------------------------------|---|
| Ez, seguru ezetz | 1 |
| Ez, ez dut uste | 2 |
| Agian bai, agian ez, ikusi egin behar | 3 |
| Bai, baliteke | 4 |
| Bai, seguru arazoak sortuko direla | 5 |
| Ed/Ee | 0 |

38. Zure iritziz, komunikabideek nola tratatzen dute, oro har, Euskadiko jatorri atzerritarra duen immigrazioaren fenomenoak?

| | |
|---------------------|---|
| Oso modu positiboan | 1 |
| Modu positiboan | 2 |
| Neutraltasunez | 3 |
| Modu negatiboan | 4 |
| Oso modu negatiboan | 5 |
| Ed/Ee | 0 |

39. Lehen hitz egin dugu lagun gabeko atzerritar adingabeez. Adin-nagusitasunera iristen direnean, hau da, 18 urte betetzen dituztenean, zer uste duzu egin beharko luketela euskal administrazioek? (10. txartela ERAKUTSI)

| | |
|---|---|
| Lanik ez badute, jatorriko herrialdera itzuli | 1 |
| Jaramonik ez egin, adin nagusikoak direlako | 2 |
| Ikasketekin jarraitzeko eta/edo lan bat lortzeko aholku eman | 3 |
| Etxebizitzarako, ikasketetarako, enplegua lortzeko, egoera administratiboa erregularizatzeko eta abarretarako laguntza-programaren bat ezarri | 4 |
| Ed/Ee | 0 |

40. COVID-19az eta jasaten ari garen osasun-egoeraz hitz egiten badugu, zeuri zenbateraino ari zaizu eragiten? Eman, mesedez, 0tik 10era bitarteko puntuazioa (0 eraginik ez, eta 10, eragin handia).

| | | | | | | | | | | | |
|-----------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----------|----|
| Batere ez | | | | | | | | | | Izugarri | Ed |
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

41. Osasun-sistemaren krisi-egoeran eta premia duten guztiak artatzeko baliabide-eskasiako egoeran, nor uste duzu duela artatzeko lehentasuna? (ERAKUTSI 11. txartela eta irakurri erantzun guztiak)

| | |
|---|---|
| Mediku-irizpideen arabera larritasun handiena duten pertsonak, autoktonoak edo etorkinak diren kontuan izan gabe. | 1 |
| Pertsona autoktonoek lehentasuna izan behar dute etorkinekiko. | 2 |
| Etorकिनek erregularizatuta badaude soilik izan behar lukete sarbidea | 3 |
| Etorकिनek lanean ari badira soilik izan behar lukete sarbidea | 4 |
| Etorकिनek ez lukete izan behar osasun-laguntza lortzeko aukerarik | 5 |
| Ed/Ee | 0 |

42. COVID-19k eragindako krisi ekonomikoaren egungo egoeran, nor uste duzu izan behar dutela laguntza ekonomiko eta sozialak jasotzeko aukera? (ERAKUTSI 12. txartela eta IRAKURRI erantzun guztiak)

| | |
|---|---|
| Pertsona autoktonoek lehentasuna izan behar dute etorkinekiko. | 1 |
| Etorकिनek autoktonoen baldintza beraietan izan behar lukete sarbidea. | 2 |
| Etorकिनek erregularizatuta badaude soilik izan behar lukete sarbidea | 3 |
| Etorकिनek ez lukete inoiz aukerarik izan behar laguntza sozial eta ekonomikoak lortzeko | 4 |
| Ed/Ee | 0 |

43. COVID-19ren osasun-krisian, gure inguruko Europako herrialde batzuetan ezohiko erregularizazioa egin zaie administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko pertsonen lanpostuak urgentziaz betetzeko. Zenbateraino zaude ados neurri horrekin?

| | |
|-----------------------|---|
| Erabat ados | 1 |
| Ados | 2 |
| Ez ados eta ez kontra | 3 |
| Kontra | 4 |
| Inola ere ez ados | 5 |
| Ed/Ee | 0 |

MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK

A. Inkesta bete duen pertsonaren sexua

| | |
|-------------|---|
| Gizonezkoa | 1 |
| Emakumezkoa | 2 |
| Beste bat | 3 |

B. Esango didazu zenbat urte bete dituzun azken urtebetetzean?

C. Habitat:

| | |
|-----------------------------|---|
| 5.000 biztanle edo gutxiago | 1 |
| 5.001 - 20.000 biztanle | 2 |
| 20.001 - 150.000 biztanle | 3 |
| Hiriburua | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

D. Euskara badakizu?

| | |
|--------|---|
| Bai | 1 |
| Ez | 2 |
| Ed/Ede | 0 |

E. Esango didazu amaitu duzun ikasketa-maila gorena zein den?

| | |
|--|---|
| Ikasketarik ez, oinarrizko ikasketak edo OHO bukatu gabe | 1 |
| Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarrizko batxilergoa, LH I | 2 |
| Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II | 3 |
| Unibertsitate-ikasketa ertainak: diplomatura | 4 |
| Goi-mailako unibertsitate-ikasketak | 5 |
| Ed/Ede | 0 |

F. Erlijioaren arloan, nola definitzen duzu zure burua?:

| | |
|---------------------------|---|
| Katoliko elizkoia | 1 |
| Katoliko ez-elizkoia | 2 |
| Beste erlijio bat | 3 |
| Agnostikoa, ateo, neutroa | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

G. Esango zenidake, mesedez, zure etxean hilean, gutxi gorabehera, zenbateko sarrera garbia izaten duzuen, kontzeptu guztiak kontuan hartuta? Erreparatu, ez dizudala kopuru zehatza eskatzen, kopurutarte hauetako bat aukeratu behar baituzu (erakutsi 13. txartela):

| | |
|---|---|
| 1.000 € baino gutxiago (166.000 pezeta inguru) | 1 |
| 1.001 eta 1.800 € artean (166.000 eta 300.000 pezeta artean.) | 2 |
| 1.801 eta 2.500 € artean (300.000 eta 415.000 pezeta artean) | 3 |
| 2.500 € baino gehiago (415.000 pezeta baino gehiago) | 4 |
| Ed/Ede | 0 |

H. Oro har, zenbateraino zaude gustura zure etxeko egoera ekonomikoarekin? Mesedez, adierazi 0tik 10era bitarteko eskala batean, non 0 erabat asegabea den eta 10 erabat gustura.

| Erabat asegabea | | | | | | | | | | | Erabat gustura | | | | | | | | | | | Ed |
|-----------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

I. Ekonomia-jarduerari dagokionez, zein da egoera une honetan?

| | | |
|---------------------------------------|---|---|
| Lanean, autonomia edo soldatapekoa | 1 | J galdera: Zein izan da edo da lanbidea edo jarduera? |
| Erretiratu, pentsionista, errentaduna | 2 | |
| Langabezian, lan bila | 3 | J galdera: Zure etxean diru-sarrera handien duen pertsonaren lanbidea edo jarduera zein da? eta K galderako ikasketak? |
| Etxekoandrea | 4 | |
| Ikaslea | 5 | |
| Ed/Ede | 0 | J galdera: 0 |

| J: LANBIDEA EDO JARDUERA | Egungo jarduera | Aurreko jarduera |
|--|-----------------|------------------|
| BERE KONTURAKO LANGILEA | | |
| 1.J: Nekazari/Abeltzain, ustiapen txikian (langile finko 1 baino gehiago ez) | 1 | 1 |
| 2.J: Nekazari/Abeltzain, ustiapen handian (langile finkoak izan ditzake, edo ez) | 2 | 2 |
| 3.J: Autonomoa (langilerik gabe) | 3 | 3 |
| 4.J: Negozio txikiko enpresaburua (1etik 5era arteko langile finkoak edo behin-behinekoak) | 4 | 4 |
| 5.J: Negozio handiko enpresaburua (6 langile edo gehiago, finkoak edo behin-behinekoak) | 5 | 5 |
| 6.J: Bere konturako langilea, langilerik gabe edo 6 langile baino gutxiago (haien jarduera garatzeko, profesional horiek maila ertaineko edo goi-mailako titulu aitortua behar dute: OLT, Aparejadorea, Sendagilea, Abokatua, Arkitektoa, etab.) | 6 | 6 |
| BESTEREN KONTURAKO LANGILEA (Sektore pribatua edo publikoa): | | |
| 7.J: 6 langile baino gutxiagoren arduraduna | 7 | 7 |
| 8.J: 6 langile edo gehiagoren arduraduna | 8 | 8 |
| 9.J: Langile profesionala (haien jarduera garatzeko, maila ertaineko edo goi-mailako titulu aitortua behar dute: OLT, Aparejadorea, Sendagilea, Abokatua, Arkitektoa, Irakaslea, Maisu/maistra, etab.) | 9 | 9 |
| 10.J: Aginte ertaina (departamentuburua, atalburua, bulegoburua, langilezaina, arduraduna, etab.) | 10 | 10 |
| 11.J: Bestelako langileak, batik bat bulego-eginkizunak dituztenak (ez profesionalak, ez zuzendariak, ez aginte ertainekoak: Idazkariak, Laguntzaileak, Kontulariak.) | 11 | 11 |
| 12.J: Bestelako langileak, batik bat bulegoz kanpoko eginkizunak dituztenak (saltzaileak, merkataritza-ordezkariek, dendariak, tabernariak, banatzaileak, postariak, etab.) | 12 | 12 |
| 13.J: Eskulangile kualifikatua (lanbideari begira, lanbide-prestakuntza edo ikasketa praktikokoak izan dituztenak: tailer-maisuak, tailer-ofizialak, etab.) | 13 | 13 |
| 14.J: Eskulangile ez-kualifikatua (peoiak, langile ez-kualifikatuak.) | 14 | 14 |
| EZ DUTE LAN EGITEN | | |
| 15.J: Erretiratu/Pentsionista/Errentaduna eta lan egiten ez duten bestelakoak | 15 | |
| 16.J: Langabetua (3 hilabete baino gehiago langabezia) | 16 | |
| Langabetua (3 hilabete baino gutxiago langabezia) | 17 | |
| ZEIN ZEN PERTSONA HORREN AZKEN LANBIDEA EDO JARDUERA? (idatzi eta sailkatu aurreko jardueraren batean, bigarren zutabean) | | |

K. BAKARRIK etxeoandreak eta ikasleak: Zer ikasketak-maila du zure etxean diru-sarrera handien duen pertsonak?

| | |
|--|---|
| Ikasketarik ez, oinarritzko ikasketak edo OHO bukatu gabe | 1 |
| Lehen mailako ikasketak: OHO, oinarritzko batxilergoa, LH I | 2 |
| Bigarren mailako ikasketak: UBI, BBB, goi-mailako batxilergoa, LH II | 3 |
| Unibertsitate-ikasleak ertainak: diplomatura | 4 |
| Goi-mailako unibertsitate-ikasleak | 5 |
| Ed/Ede | 0 |

L. Politikari buruz hitz egiten denean, normalean, ezker eta eskuina hitzak erabiltzen dira. Txartel honetan (14. TXARTELA), zenbait lauki ageri dira, ezker muturretik (0) eskuin muturrera (10) sailkatuta. Zein laukitan kokatuko zenuke zure burua?

| Ezker muturra | | | | | | | | | | | Eskuin muturra | | | | | | | | | | | Ed |
|---------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

M. Politikari buruz ari garela, Euskadiri eta euskalgintzari erreferentzia egiten diogunean, askotan, espainolismoaz (nazionalismo espainiarra) eta **euskal nazionalismoaz** hitz egiten da. Esango zenidake, mesedez, non kokatuko zenukeen zure burua 0tik (gehienezko euskal nazionalismoa) 10era (gehienezko espainolismoa) bitarteko eskala honetan?

| Euskal nazionalismoa | | | | | | | | | | | Espainolismoa | | | | | | | | | | | Ed |
|----------------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|---------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|
| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 99 |

N. Jarraian dituzun esaldi horietatik, zein esaldik adierazten ditu ondoen zure sentimenduak? (guztiak IRAKURRI)

| | |
|--|---|
| Espainola bakarrik sentitzen naiz | 1 |
| Euskalduna baino espainolagoa sentitzen naiz | 2 |
| Euskaldun bezain espainol sentitzen naiz | 3 |
| Espainola baino euskaldunagoa sentitzen naiz | 4 |
| Euskalduna bakarrik sentitzen naiz | 5 |
| Ed/Ede | 0 |

Izena: _____

Telefona: _____

Udalerrria: _____

ADIERAZI DATU HORIEK ELKARRIZKETA BENETAN EGIN DELA EGIAZTATZEKO ESKATU ZAIZKIOLA.